



Historia gogoan

Mandazainen egunean Sebastian Fernandez de Lezeta koronelaren konpainiaren fusilamendua birsortu zuten / 2-4

Irurtzunek kultur etxea eta Arbizuk eskola zaharra birgaitzeko laguntzak jaso dituzte / 11

Arkeologoek lanaren ondoren, Olatzagutiko ur araztegia berritu eta handitzeko prozesua martxan / 14

Altsasuko CBASK saskibaloia klubeko emakumezkoen talde seniorra bueltan da, irauteko gogotsu / 16-17

Irurtzun klubak badu beste perla bat: Adrian Azpiroz, Nafarroako Banakako bigarren mailako txapelduna / 18

Iñaki Gasco Claver altsasuarrak The Guilty Brigadeko gitarrista da; bihar gaztetxean egonen dira / 23



'Dos Pelos' eta bere soldaduen fusilamenduaren birsortzea Erregengurutzen.

Berrehun urte atzera eginez

1822ko urrian Sebastian Fernandez de Lezeta 'Dos Pelos' koronelaren eta bere soldaduen fusilamendua izan zen Iturmendiko Erregengurutzen. Bigarren mendeurrenean gertatutako gogora ekarri zuten Mandazainen Egunean

Erkuden Ruiz Barroso ITURMENDI
"Viva La Pepa!". Fusil tiro bat.
"Viva el Rey!". Beste tiro bat.
Larunbatean Iturmendik iragana
bidaia egin zuen eta tarte
batez hiru urteko liberean bizi

izan zuen. Burundako herrian
Mandazain Eguna izan zen, eta
ospakizuna baliatuz duela berrehun urte mandazainek erabiltzen zuten Bernoako galtzadan izandako Sebastian Fernandez

de Lezeta *Dos Pelos* koronelaren eta bere 105 soldaduen fusilamenduaren bimendeurrena go-goan izan zuten gertakizunaren birsortzea eginez. 1813ko Gasteizko Batailako Historia Birsor-

tze Elkarteko zenbait kidek berpiztu zituzten liberal konstituzionalen eta erregezaleen soldaduak. Bi birsortze egin zituzten, alde batetik, Erregengurutzen, Bernoako galtzadan, fusilamenduarena eta, bestetik, plazan *Dos Pelos* koronela eta soldaduak Deikazteluko elizan ezkutatu zirenean, baina azkenean preso hartu zituztenean.

Nicolas Arbizu Gabirondo iturmendiarraren ideia izan zen. "Bera izan zen ideiarene sustatzailea eta errealtate bihurtu zuena". Asier Merino 1813ko Gasteizko Bataila Birsortze Historikoaren Elkarteko kidea da, eta Iturmendin egun "oso polita" pasa zutela esan zuen. "Nicolas gurekin harremanetan jarri zen Ulibarri Haranan, *Dos Pelos* jaio zen herrian, antzeko errekreazioa egin guelako eta berak ikusi

zuen. Nola egin genuen gustatu zitzaion, gogoratu zen, eta gurekin kontaktatu zuen". Iturmendin elkarteko hamar bat birsortzaile egon ziren. Arbizuk *Dos Pelos* koronelaren eta bere soldaduen fusilamenduaren inguruko informazioa eman zietela esan du Merinok. "Gu birsortzaile historikoak gara eta historia eta dokumentatzea gustatzen zaigu". Aurretik historialariarekin Erregengurutzen, fusilamendua izan zen tokian, egon zirela aipatu du ere, "istorioa ahalik eta hoberen kontatzeko".

Bizitzera ekarri


Birsortzaile Historikoak historia zaleak dira, eta garai bateko arropa, osagarriak eta arma erreplika "zehatzak" janzea eta erabiltzea gustatzen zaie. "Gauza hauek pertsonalki eta neurri-egitea eskatzen dugu, gaur egun ezin direlako aurkitu berrehun urte baino gehiagokoak direlako, jakina". Gertaerak birsortzea "izugarri" gustatzen zaiela esan du Merinok: "Birsortzeak berriz sortzea esan nahi du, hau da, iraganeko garaia bizitzera ekarri". Garai horietan nola bizi ziren, nola jaten zuten eta abar ezagutzeko ikasten eta dokumentatzen dira. "Historiaren hori guztia gustatzen zaigu. Historia berriz bizitzea eta jendeak horri buruz galdetzea. Guk azaltzen gogotsu azaltzen dugu".

Iturmendin historia lezio azkarrak eskaini zuten birsortzearen ondoren: armak nolakoak ziren, nola funtzionatzen zuten... Esaterako, hiru urteko libereko garaian fusilak ez ziren batere fidagarriak, eta bi metrora baino urrunago botatzeko, "agian bati eman nahi zioten, eta ondokoari ematen zioten". Tiro egiteko, bolbora pixka bat sartu behar zuten kolpekaria-

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra



ren ondoan dagoen pieza batean sartu, eta berunezko bolak tiratzen zituzten. Garai horretan soldaduek janzten zuten arropa, eta elkartekoek janzten zutena, kotoizkoa zen, "gogorra", bolbora botatzen txinpartak sortzen zirelako eta kotoiak hobe irauten zuelako. Zebait datu gehiago eskaini zieten bertaratukoei.

"Bakoitzak badu bere istorioa. Nire kasuan historiaren zale amorratua naiz bizitza osotik; betidanik gustatu izan zaidan gauza bat da". Belgikatik bidai bat egiten ari zirela, Waterloo batailaren bigarren mendeurrenaren berregitea ikusteko aukera izan zuen, "harrigarria izan zen, milaka birsortzailek parte hartu zuten. Pentsatu nuen gustatuko litzaidakeela hor behean egiten ari zirena egiten egotea; horrelako batean parte hartzea". Merinok Gasteizko elkarteak aurkitu zuen, haiekin harremanetan jarri zen, "eta gaur egun arte, barruraino sartuta". Elkarteko beste kide batzuk aurretik dituzten zaletasunagatik iritsi direla azaldu du: "Badago miniaturak egiten dituztenak. Berunezko figurak margotuz eta margotuz ibili ondoren figurak bezala jantzea eta abar erabakitzen dutenak".

Birsortzeak

1813ko Gasteizko Batailaren Birsortze Elkarteak urtean hamalau edo hamabost berregite edo ekimen egiten dituztela esan du Merinok. "Denek ezin dugu guztietara joan bakoitzak badugulako gure lanak, familiak eta abar, baina hamabost irteera inguru egiten ditugu, lasai asko". Horietako batzuk haiek antolatzen dituzte, "gureak dira"; eta beste batzuk zaletasun berdina dutenen topaketak dira. "Jende askok ez duen zaletasun bat denez, toki desberdinetako elkarteek ekimen handiak antolatzen dituzte, eta beste elkarteek deitzen digute joateko". Jaialdi antzekoak dira. "Edukiera zenbaki oso handiekin mugitzen dira". Espainiako Estatu osotik mugitu dira, eta atzerrian ere egon dira: "Ekimen horien aurrekontuaren arabera, koa izan ohi da, baina ehun eta lauhun artean biltzen gara askotan". Datorren urtean, 2023an, Gasteizko Batailaren 110 urteurrena oroitzeko nazioarteko birsortzen bat antolatu nahi dute, eta mundu osoko 300 edo 400 birsortzaile eramaten saiatuko direla azaldu du Merinok.

Izenak dioen bezala, 1813ko Gasteizko Batailaren Birsortze Historikoaren Elkarteak Arabako hiriburuan izandako batailaren bigarren mendeurrenaren harira sortu zen. 2014an elkarte moduan izendatu zuten eta 50 bat bazkide dira, "baina birsortzaileak 25 bat gara. Besteek boluntarioki laguntzen dute". Elkartean "edozeinek" izena eman dezakeela azaldu du: "Ez dugu adin tartetik; adin txikikoak ere baditugu, beste paperekin, hau da, rol zibilak egiten dituztenak, emakumezkoak ere daude". Elkartea "publiko guztietara" irekita dago, eta jendea probatzera animatu du Merinok: "Probatu dezatela eta gustatzen bazaie informazioa eskatzeko. Irekiak gaude".

Lau mende

Elkartea Gasteizko Batailaren bigarren mendeurrenaren harira sortu zenez, hasiera batean Napoleondar garaia jorratzen zutela azaldu du Merinok: "Independentzia gerra Gasteizko batailan zentratuta". Urteak pasa ahala garai gehiago hartzen joan direla esan du. "Orain bolbora beltza bezala ezagutzen den etapa hartzen dugu, Berrezarkuntzatik, bolbora Europara iritsi zen garaitik, XIX. mendeko erdialdera arte, Karlistadak eta Amerikako Gerrara arte". Lau mende hartzen ditu elkarteak.

Normalean birsortzaileek garai desberdinetako arropa, materialak eta gauzak eta armak dituzte, toki bakoitzean "berpiztu" nahi den garaia berregin ahal izateko: "Iturmendin esaterako hiru urteko liberala garaiko gertaera bat zen; beste toki batzuetan Napoleondar garaia izan daiteke edo Lizarrako Karlistadak, esaterako". Udan Burgosko Lerman egon ziren nazioarteko "ekimen nahiko handi" bat egin zutelako, Flandesko tertzioak

"HISTORIAREN ZALEAK GARA, ETA GERTATUTAKOA BIZITZERA EKARTZEN DUGU BERRIRO"

1813KO GASTEIZKO BATAILAKO BIRSORTZE ELKARTEKO KIDEAK ITURMENDIN IZAN ZIREN



Fusilamenduaren birsortzea Erregengurutzen.



Mandazainen inguruko erakusketa Iturmendiko udaletxean.

birsortu zituzten, eta elkarteko zenbait kide joan ziren. "Guztia bezala, bakoitzaren ahalmenaren arabera da. Badago jendea garai guztietako jantziak izan ditzakeela horrelako ahalmena duelako, eta beste batzuk pixkanaka joaten dira lortzen".

Erabiltzen dituzten arropak neurrira egiten dizkiete. "Badiugu jostunak kontratatutak, baita larru artisauak ere". Internet bidez ere "gauzak" lortzen dituztela esan du, "gaur egun oso tresna baliagarria da, egia esan. Frantziako eta Belgikako artisauekin harremanetan jartzen gara". Pieza batzuk "oso eksklusiboak" dira eta eskuz egiten dizkiete. Armak ere gaur egun armagileek eta fabrikek garai bateko berregite "oso errealek" egiten dituztela azaldu du, "garai horretakoak bezalakoak". Segurtasun probak egiten dizkiete. "Egiazkoak dira, tiro zelaira joaten gara eta armak ditugunok derrigorrez arma lizentzia izan behar dugu". Berunezko bola bat sartzean tiroak "aberi" handia egin dezake. "Federatutako tiro zelaietan probak eta praktikak egiten ditugu". Birsortzeetan bolbora sartzen dute bakarrik, eta eztanda egiten duen arren, ez dute bolarik botatzen. "Esperientzia pasada bat da. Benetan sentitzen duzu soldadu horiek bataila baten erdian sentitu behar zutena, ez tandekin, kea...".

Birsortze bat dela, "antzerki bat", eta aurrean dagoena lagun bat dela "eta ez arerio bat" argi duten arren, "badira momentuak ekimenaren erdian adrenalina oso handia dela eta paperean asko sartzen zarela". Horrek "harrapatzen" dituztela azaldu du: "Gure arteko kamaradaeria, ekimenaren ondoren bazkaltze-eraklartzen gara. Badira aste-buruko ekimenak ere su baten inguruan elkartzen gara eta garai horretan bezala kanpatzen dugula". Publikoarendako politena birsortzea bera bada ere, "beste horrek guztiak da erakartzen gaituena ere". Toki desberdinetan "beti berdinak" elkartzen direla azaldu du, "eta politena da toki guztietako lagunak egin ditugula".

Familiartekoa

Birsortze historikoak egitea ez da ohiko zaletasun bat. "Esan nienean lagunak flipatu zuten. Ikusten gaituzten bakoitzean oso ongi dagoela esaten digute, bai-

ta zer gauza arraroak egiten ditugun ere". Familiari dagokionez hasiera batean emazteari "ez zion ilusio handirik egin", baina gertu egoteko modu bat zela ikusirik, "nirekin janzten hasi zen eta orain ni baino sartuago dago. Harrigarria da". Batzuetan alaba eramaten dute ere, familiarteko zaletasun bat dela egiaztatuz. "Gurekin eramaten dugu eta berarentzako kanpaleku bat bezala da, izugarri gustatzen zaio arraro janztea badakielako joaten garen tokira joaten garena atentzio zentroa izango dela. Oso gustura gaude".

Birsortzeak antzerkiak baino zerbait gehiago badirela azaldu du Merinok: "Aktoreek gidoia ikasten dute, eta interpretatu behar duten papera ahalik eta hoberen egiten saiatzen dira, dramatizatzen. Gu zaleak gara. Ez dugu bakarrik paper bat interpretatzen, badakigu pertsonaia hori nola sentitzen zen momentu horretan, badakigu zer jaten zen garai horretan, nola hitz egiten zen, nola pentsatzen zen...". Birsortzaileek pertsonaiak berpiztu egiten dituzte, "bizitzara berriz ekarri".

Ikusten ez den lan handia egiten dute. "Gu historiaren zaleak gara eta dokumentatzen gara. Bilerak egiten ditugu ikasitakoa eta aurkitutakoa komentatzeko". Neguan ekimen gutxi egiten direnez, entseatzeko eta entrenatzeko elkartzeko dira ere. "Normalean XIX. mendeko unitate militarrek birsortzen ditugu, eta soldadu bat egitea nahiko erraza da, baina unitate oso bat egitea, guztiz koordinatuta, mugimenduekin eta ordenekin... Nahiko entseatzeko dugu". Zale bezala ordu asko eskaintzen diotela azaldu du Merinok.

Gertaerak

Sebastian Fernandez de Lezeta *Dos Pelos* Ulibarri Haranan, Araban, jaioa zen eta liberala zen, Espoz y Minaren konfiantzazkoa eta hamar urte lehenago indarrean sartu zen Kadizko Konstituziaren alde borrokatzen zuen. 1822ko urrian *Dos Pelos* eta bere 125 bat soldadu Fernando Zabala erregezaleen tropatik ihesean ari zirela Deikazteluko elizan sartu ziren. Erregezaileek ateari su eman zioten eta itota ez hiltzeko *Dos Pelos* eta bere soldaduak atera ziren eta preso hartu zituzten. Preso zirela Lizarratik Etxarri Arana-



Fusilamenduaren birsortzea Erregengurutzen.



Iturmendiko eta Ulibarri Haranako alkateak, San Anton kofrarietako kideekin.

tzera joan ziren, eta Bernoako galtzada hartuta Iturmendira iritsi ziren. Presoak oso nekaz zuten eta eseri ziren, atzetik konstituziozaleak zetozen eta laster harrapatu behar zituzten, *Dos Pelos* eta bere konpainiako soldaduak, beraz, karga bat ziren eta Zabalak fusilatzea erabaki zuen gaur egun Erregengurutze deitutako zonaldean, lehen Ibarbetz. Nicolas

'DOS PELOS'-EN ETA BERE SOLDADUEN FUSILAMENDUAREN BI PASARTE BIRSORTU ZITUZTEN

Arbizuk beronezko balak aurkitu zituen bertan.

1813ko Gasteizko Bataillaren Birsortze Elkartek *Dos Pelos* koronelaren eta bere soldaduen fusilamenduaren eguneko bi pasarteak berregin zituen: Erregengurutzen fusilamendua eta plazan Deikaztelun preso hartu zituztenean. "Basoan hor benetan gertatu zena birsortu genuen, triskantza bat izan zela. Hori berregiten saiatu ginen, jende gutxiagorekin, baina modu fidelean". Erregezaleak konstituziozaleen troparen ihesean basoan nola sartu ziren eta presoak eramateak asko kostatzen zitzaie la erakutsi zuten, "bertan erail zituzten arte". Batzuk ihes egitea lortu zuten. "Plazan, fusilamen-

duaren birsortzea ez errepikatzeagatik, izan ere, basoan egon zen jende asko herrian zegoen ere, Sebastian Fernandez de Lezetaren harrapaketa birsortu genuen". Iturmendiko udaletxea, beraz, Deikazteluko eliza bihurtu zen, eta atea ezin zenez erre "parlamentua" egin zuten; hau da, *Dos Pelos*ek bandera txuria atera zuen. Amaiera, aldiz, fidela izan zen: fusilatutak izan ziren.

ITURMENDIKO MANDAZAIN EGUNEAN BURUNDAKO SAN ANTON KOFRADIEK PARTE HARTU ZUTEN

Mandazainen Eguna

2022ko urriaren 22ra bueltan, eta efemeridadearekin batera, Iturmendin Mandazainen eguna ospatu zuten. Mandazainak Burundako ogibide oso garrantzitzua izan zen XVI. mendetik XIX. mendeko lehenengo hamarkadetara arte. Garaiko garraiolariek ziren. Mandoez tiratutako gurdietan herriak hornitzen zituzten: olio, gatz, ardoa... Barnealdetik kostaldera joaten ziren, eta kostaldetik itsasotik ekarritako gauzak barnealdera garraiatzen zituzten, bereziki txokolatea, kafea, tabakoa eta espezieak, Nicolas Arbizuk azaldu zuen bezala. *Burundako Mandazainak* liburuaren egia da historialaria. Mandazainak Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Iturmendiarteangoen eta berreskuratzen ari diren Bernoako galtzadatik pasatzen ziren. Iturmendiren kasuan 3 bat kilometro berreskuratzeo daudela azaldu zuen Arbizuk.

San Anton kofradiak mandazainekin harreman estua dute eta Iturmendin Bakaikuko, Urdiaingo eta Iturmendiko kofrarietako ordezkariak egon ziren. Bakaikuko Xabier Goikoetxea-Ziordiak kofrariaren lehenengo liburua eraman zuen, 1715koa; Urdiaingo Josu Lanaskofrariako maiordomoak bandera eraman zuen, baita Iturmendiko Javier Junguituk kofrariaren 1690ko bandera atera zuela. Zaharberrituko duen profesionalik bilatzen ari dira. Iturmendira ere Ulibarri Harana Dos Pelosen jaioterriko, alkatea Fernando Orbiso egon zen, baita koronelaren zenbait oinordeko: Fulgen eta Belen Fernandez de Lezeta eta Jesus Maria eta Samuel Mendiguren eta Eduardo eta Fernando Garcia de Bikuña.

Iturmendiko udaletxean mandazainek erabilitako tresnen erakusketa "xumea" jarri zuten ere, egunean bertan bisitatu zitekeena. Ospakizuna aurrerago errepikatzeke nahiarekin sortu dutela azaldu zuen Imanol Arbizu Iturmendiko alkateak, "ez dakigu urtero, baina errepikatzea gustatuko litzaiguke".

Bernoako galtzada baloreen jartzea zen Mandazainen Eguneke beste helburuetako bat eta *Dos Pelos*en fusilamenduaren inguruko liburuxka bat saldu ez ezik, galtzadak osatzen duen GR323 ibilbidearen mapa bat banatu zuten ere. 64 kilometroko bidea da, bi etapa nagusiekin, hamaika bidexkekin eta ibilbide zirkularrarekin ere.



ASTEKOA

ANDREA CARRILLO JUANBELTZ

Gizarte erronka: indarkeria

Hilabete barru dugu genero indarkeria gogoratzeko eguna. Ordea, ez al genuke indarkeria lehenago ulertu beharko? Hona hemen definizioa: "pertsona edo talde baten aurka indarra edo boterea nahita ala mehatxuz erabiltzea, lesioa, heriotza, kalte psikologikoa, nahastea edo gabezia eragiteko gaitasunaz".

Has gaitzen "indarra edo boterea nahita erabiltzea"-rekin. Ba al dakigu noiz erabiltzen dugun boterea ala indarra? Are gehiago, jakitun al gara norbaiten gaineko gure botereaz? Askotan, onarpena jasotzen duen talde sozial batean egotearen zorteagatik gozatzen dugu horretaz. Posizio hori ondo erabiltzen al dugu? Azken batean, arrakasta neurritzat duen gizarte batean, edozer egiteko gai gara besteen azpitik ez sentitzearren, indarkeriaz gozatuz. Has gaitzen bada okupatzen dugun lekuaz jabetzen, geure ekintzen ardura hartuz.

Ondoren, "pertsona edo talde baten kontra" atala dugu. Ezberdintasunak, gure lekua duinagoa dela pentsatzeak, ala

EDOZER EGITEKO GAI GARA BESTEEN AZPITIK EZ SENTITZEARREN, INDARKERIAZ GOZATUZ

biktima izateagatik egiarekin sentitzeak baimena ematen digu besteak erasotzeko. Halere, zaila da bakea defendatzea indarkeriarekin borrokatuz, botere postuari uko egin gabe. Izan ere, indarkeriak gauzatzeko justifikazioaren bat aurkitzen du beti, lekua

mantendu zein berria lortzeko bada ere. Agian arauak aldatu beharko genituzke, erabiltzeari uztera eta elkarriketan aritzera ausartuz. Aldaketari beldurrik ezean, entzuteari ekin. Benetako erronka da bakea eraikitzea indarkeriak ordena ezartzen duen gizartean. Desordena nahiago dut, maitasun gehiagoz eta errespetu osoz.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu-luka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Euskara, hizkuntza sexista?

ERRAFAILAK SAKANAN

Askotan mugimendu feministatik kritika asko egin zaizkio hizkeraren erabilerari matxista delako. Sarri entzun izan ohi da X hizkuntza matxista dela, ez dituelako emakumeak izendatzen edo kontuan hartzen. Gehienetan, genero ezberdinak erabileraren inguruan agertzen dira horrelakoak. Baina, euskararen kasuan, zer nolako erabilera egiten dugu?

Euskararen kasuan, aipatu beharra dago, nahiz eta generorik gabeko hizkuntza izan, generodun hitzak daudela (seme-alaba,

errege-erregina, jaun-andre..) eta hitanoan genero desberdinketa egiten dela gizon/emakumeei dagokionez. Baina, erabilera nagusi eta ugariena zukan izan ohi denez, uste dugu euskarak ez duela erabilera matxistarik, eta hori ez da horrela izaten.

Euskarari dagokionez, bada oraindik ere gizona hitzak gizaki guztiak aipatzeko edo ordezkatzeko erabiltzen dutena. Esaterako, gure kulturaren adierazpen desberdinetan (*gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia...*), edo ikasgeletan eta

historiako liburuetan sufragio unibertsala bezalakoak erabili aipatu gabe unibertsal horrek emakumeak kanpo uzten zituela, besteak beste.

Beraz, hizkuntzaren erabilerarekin ere kontuan hartzekoa da gure testuinguru patriarkalak eragina duela gure komunikatzeko eran. Hizkuntzak ez dira sexistak, horiek erabiltzen dituzten pertsonen ematen dieten erabilera matxista, eta emakumeak eta bestelako genero disidenteen presentzia ezkutatzeko du.



OBJEKTIBOTIK

Manifestazio jendetsua Tuteran, euskararen alde eta diskriminazioaren aurka.

#ZonifikazioariHordago!



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Jose Manuel Bueno Perez eta Juan Manuel Paniagua Martin Adavan elkarteko kideak.

Amiantoaren biktimen alde eman beharreko pauso bat

Eusko Legebiltzarrak 2011n lehen eskaera egin eta 11 urtera, hirugarren saioan, amiantoaren biktimei kalte ordaina emateko funtsa sortzea erabaki zuten Espainiako Gorteek lastailaren 5ean. Hasiera batean 25 milioi izango ditu funtsak

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Duela 50 eta 60 urte jakina zen amiantoak minbizia sortzen zuela. Produktu harekin makina bat langilek lan egin zuen, ez musuko ezta inolako babesik gabe. Langile batzuek sudurrean hazkura sentitzen zuten, bakkarren bat sudurretik odoletan egoten zen... Langileek ez zuten informaziorik. Haien kexei ez zieten kasurik egin. Eta orain kontuak.

Jose Manuel Bueno Perez eta Juan Manuel Paniagua Martin Adavan, Nafarroako Amiantoaren Biktimen Laguntzarako eta Defentsarako Elkarteko presidentea eta idazkaria dira. Amiantoaren biktimei kalte ordaina emateko funtsa sortzea "oso garrantzitsua da" eta, horregatik, "poza sentitzen" dute, "hasiera da, eman beharreko pausoa zen". Izan ere, hainbat arrazoiengatik

erabakiaren onarpena atzeratu egin da. Senatariak beraiek aitortu zuten 20 urteko atzerapenarekin onartu zutela legea. Hura aho batez onartzearen garrantzia ere aitortu dute Adavanekoek.

Buenok azaldu duenez, "legearen izpiritua European dauden beste konpentsazio funts batzuen antzekoa da". Paniaguak jakinarazi duenez, "Belgika, Frantzia eta Herbehereetan 1998tik daude indarrean konpentsazio funtsak. Ondoren, Ingalaterrak onartu zuen. Tristeki, Espainia, azkenetakoa.

"BELGIKA, FRANTZIA ETA HERBEHEREETAN 1998TIK DAUDE KONPENTSAZIO FUNTSAK"

Europako bat bakarrik dugu atzetik".

Buenok azaldu duenez, "orain hiru hilabete dituzte legearen araudia garatzeko. Kezka dugu tramite horretan legeari 'gauzatxoak' kenduko ote dizkioten; urardotuko duten eta Frantzian edo Belgikan dutenaren modukoa ez izatea". Legea "ahalik eta hobekien" gelditzeko lan egingen dute orain Adavan moduko elkarteek. Eguberriak tartean daudenez, lau hilabete barru araudia onartua izatea espero dute. "Senatari batzuen desira da heldu den urtean bakarren batek konpentsazio funts horretatik kobratzea", azaldu du presidentek.

Kalte ordainez

Kompentsazioa eskuratu ahal izateko, Gizarte Segurantzak aitortu duen amiantoagatik

sortutako gaixotasun profesionala izan behar da. Edo amiantoagatik sortutako gaixotasun arrunta. "Gaixotasunen zerrenda dago, eta beste batzuk gaixotasun arrunt gisa sartzen ahaleginduko gara (pleura kalzifikazioa, pleura gizontzea...). Ez dakit zergatik deitzen dieten gaixotasun onberak. Horrela, kalte ordainen bat jasotzeko aukera legoke", azaldu du Buenok. Langintza zaila izanen dela aitortu du.

Kompentsazio funtsa Gizarte Segurantzak kudeatuko du. "Gobernuak horretarako Gizarte Segurantzak bidez emanen duenak eta enpresariak jarriko duten diruak osatuko dute funtsa", azaldu dute biek. "Enpresei jarritako zigorrekin ere osatuko da funtsa. Baina ea nolakoak diren zigor horiek... Lan istripuen kasuan, sortu duten kalterako isun oso txikiak ordaintzen baitituzte enpresek", esan du Paniaguak.

Buenok argitu duenez, "kaltea sortu duen enpresak ordaindu egin beharko luke. Baina konpentsazio funtsa, batez ere, desagertutako enpresen langileendako, han lan egindako autonomoendako edo senideren bat lantegian izan eta haren arropa garbitu zuten emakumezkoendako da; enpresa desagertu denez, ezin baitiote inori erreklamatu". Paniaguak nabarmendu duenez, "kompentsazio funtsak batez ere sekula enpresa batean lan egin ez duten etxeko andre asko hartuko ditu. Senar, bikote edo semeen arropak garbitu zituzten. Ez dute enpresan sekula lanik egin eta gaitza dute. Zeinek ordainduko die bestela? Horregatik ere poztzen gara onartu izanaz".

Zergapetzea

Hala ere, badaude garai batean ekoizpen prozesuan amiantoak erabili eta gaur egun martxan dauden enpresak. "Halakoetan konpentsazio funtsa jotzeko aukera izanen da. Baina eman behar dizun diru kopurua epaitegian lortu dezakezuna baino txikiagoa bada, bata edo bestea

"FUNTSAK BATEZ ERE SEKULA ENPRESA BATEAN LAN EGIN EZ DUTEN ETXEKO ANDRE ASKO HARTUKO DITU"

aukeratzeko izanen duzu", azaldu du Buenok. "Horregatik da garrantzitsua jakitea konpentsazio funtseko kalte ordaina zenbatekoa izanen den. Esate baterako, 50.000 euro eman behar badizkizute eta epaitegira joz 200.000 edo 300.000 euro lor baditzakezu. Kasu horretan argi dago zer egingen duten martxan dauden enpresetan aritutakoek", gaineratu du. "Hori dela eta, aipatu zen kalte ordainak epaitegiek ematen dituztenen parekoak izatez hitz egin zuten. Trafiko istripuetan bezala, baren batzuk egotea, eta hortik joko da. Baina mozten saiatuko diren beldur naiz", esan du Buenok. Epaitegira jotzeak lau urteko prozesua eskatzen duela gaitzatu du: "epaiketak, borroka eta agian ez duzu ezer lortzen. Horregatik, konpentsazio funtsaren bidea errazagoa da. Baina kalte ordaintan aldea izugarria bada, konpentsazio funtsa lan egin zuten enpresa itxita dutenendako izanen da".

Gaixoren batek kalte ordaina jasoz gero, lortutako diru horren zerga tratamenduan ere azpimarra egin du Paniaguak: "betirako gaixotu zaituzte, sendabiderik ez dago, eta tristea litzateke kalte ordainaren %45-47 ordaindu behar izatea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan. Kalte ordainak ez dizkio inori izanen dituen oinaze guztiak konpentsatuko, eta, gainera, halako zergapetzeak jartzea... Zergapetze horren kontra borrokatuko gara orain". Jakinarazi dutenez, epai bidez lortutako kalte ordainek ez dute zergarik ordaintzen.

Zerrendak

Nafarroan amiantoak erabili duten enpresen zerrenda bat dago. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan dago. "Datuen babeserako legeagatik hara joan beharra dago zerrenda kontsultatzerako". Asbestosia, mesotelioma, biriketako, minbizia, sabel minbizia, maskuri minbizia, prostata minbizia, bular minbizia... "Minbizi asko amiantoak sortutakoak direla frogatzen ari dira", azaldu du Buenok. Paniaguaren susmoa da daudenak baino amiantoaren biktima gehiago egon behar dutela.

Gaitzak gaixotasun profesional gisa onartua izateko gaixoen prozesu bat, "gurutze bidea",

pasa behar du. Lehenik Lan Osasun instituturara joan beharra dago. "Han aitortu behar dizute amiantoarekin lan egin duzula. Horregatik da hain garrantzitsua amiantoarekin lan egin duen guztiak erregistro horretan izena emanda egotea. Jendeak begiratu dezala izena emanda dagoen edo ez. Ez badago, saia dadila han bere izena ematen. Legea garatzean, zerrendan ez bazaude, kanpoan zaude", azpimarratu du Buenok. Paniaguak esan duenez, "halakoen berri ez dutenek, beraien medikuarengana jo eta amiantoari buruzko kontsulta izan dezakete". Paniaguak bere kasuaren berri eman du: "enpresa batetik atera, hura desagertu eta zerrendatik atera ninduten. Medikuegatik izan ez balitz errebisiorik gabe geldituko nintzateke".

Behin erregistroan sartuta, Lan Osasunak non eta zein lanpostutan lan egin duzun aztertzen du. Hiru eta bost hilabete artean irauten du prozesu horrek. Txostena egin eta Gizarte Segurantzaren esku uzten dute. Hark beste ikerketa bat egingen du, antzeko iraupena izanen duena. Eta haiek esanzen dute amiantoak eragindako gaixotasuna den edo ez. "Aldekoba bada, dagokionari kalte ordainak eskatzeko erraz duzu. Baina ukatzen badizute, automatikoki kanpoan gelditzen zara", jakinarazi du presidenteak.

Arretarako protokoloa

Amiantoak gaixotutako pertsonen osasun jarraipena egiteko protokoloa indarrean dago 2013tik. Han jasoa dago gaixoei maiztasun jakin batekin mediku azterketa pasa behar dutela. Buenok azaldu duenez, "adinaren eta amiantoarekin harremanetan egondako denboraren arabera, mediku azterketen maiztasuna urterokoa, bi, hiru edo lau urtekoa da. Esaterako, amiantoarekin harremanetan hamar urte baino gehiago egon den eta 55 urte baino gehiago dituen pertsona batek urtero pasa behar du mediku azterketa". Baina "kostuak murrizteko" dagokie-



Adavaneok konpentsazio funtsa onartzeko eskatuz kontzentrazioa egin zuten duela urte bat.

nean baino, bi, hiru edo lau urtero pasatzeko esaten diete.

Protokoloan jasotakoa azterketa epeak betetzea exijitu du Paniaguak. "Pandemiarekin, desastrea izan da. Hiru urte mediku azterketarik gabe egon gara. Gaitza garaiz atzematea, detekzio goiztiarra, garrantzitsua da, aurre egiteko aukeraren bat izan dezazun. Urte bat beranduago atzematen badizute, agur!" Paniaguak jakinarazi duenez, haiek izaten dira medikuari azterketa dagokiela jakinarazten dutenak.

Errebisioen alde borrokatuko du Adavane. "Osasun kontseilariarekin harremanetan gaude, haiekin bildu nahi dugu errebisioen epeak ez luzatzea eskatzeko. Dagokienean egitea nahi dugu". Aurki biltzekoak dira. Gainera, azterketak ongi egitea

"GARRANTZITSUA DA AMIANTOAREKIN LAN EGIN DUEN GUZTIAK ERREGISTROAN IZENA EMANDA EGOTEA"

nahi dute, "erradiografiak egin beharrean TAC bat, ordenagailu bidezko tomografia egitea nahi dugu erakusten duena zehatzagoa eta eraginkorragoa delako", azaldu du Buenok.

Desagerrarazi beharra

Europako araudiak dio 2030erako amianto desagerrarazi behar dela. Nafarroan amianto kentzeko legea indarrean dago eta amianto hondakinak nola kudeatu behar diren jasoa dago. "Ona da baina kaxoian gordea dute". Eginkizun horretarako 250 milioi euro omen ditu foru administrazioak. Legea betetzeko urtero diru sail bat dago Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetan. Eta horri buruz ere hitz egin nahi dute Adavaneok Santos Indurain Orduña osasun kontseilariarekin. "Aurtengo aurrekontuetan 40.000 euro baino gutxiago bideratu zituzten 25-30 pertsona amiantoaren inguruan trebatzeko. Esaterako, eraikin batera joatean amianto nola kendu behar den jakiteko. Baina zortzi urteren faltan, amian-

toa kentzeko aurrekontua hantitu beharra dute. Ez dakigu 2023ko aurrekontuetan amianto kentzeko zer diru kopuru dagoen", azaldu du Paniaguak. Jakinarazi duenez, gaur egun amianto kentzeko 1.000 euroko dirulaguntza dago jabe bakoitzarendako. Kopuru txikia dela uste dute. Joan den urteko azaroan Nafarroako Parlamentuan ordezkata dauden talde guztiekin bildu ziren gaiari heltzeko eskatuz. "Denak alde zeuden". Kontseilariarekin bildu ondoren, talde guztiekin lan bilera egin nahiko lukete.

Kenduko den amiantoarekin zer egingen den da beste kontu bat. "Hemen kendutakoa ez dakigu nora doan. Kontua ez da hemendik kentzea beste toki batean uzteko. Ahalik eta gutxien

"PANDEMIAREKIN, DESASTREA IZAN DA. HIRU URTE MEDIKU AZTERKETARIK GABE EGON GARA"

mugitu behar da, ahalik eta gutxien kutsatzeko. Amianto kudeatzeko zentro bat egon behar du hemen. Vianan bat egon zen", azaldu du Paniaguak. Erabat itxia den eta ihesik ez lukeen zerbait izan beharko lukeela gaztigatu dute.

Amiantoak duen arriskuaz gaztigatu dute. Horregatik, uralita puskak non-nahi ez botatzea edo bideetako zuloak tapatzeko ez erabiltzea eskatu dute. "Hori egiten duenak bere burua eta airea, ura, lurra kutsatzen ari da. Bartzelonan, uralita egiten zen enpresaren inguruan bideetako zuloak betetzeko erabili zuten hondakinak. Haizeak harrotutako hautsak arnastu ondoren inguruko auzoetan minbizi tasa handiak utzi ditu". Edonon botatako amiantoak duten materialen kontura Sakanako Mankomunitatearekin eta Altsasuko Udalarekin bildu izan dira. Legea indarrean sartu bitartean botatakoa jasotzeko eta gordetzeko "zerbait eraginkorra, ziurra eta azkarra" eskatu diote bi erakundeei.



EGOKI
Ventanas PVC Leihokak
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehiak berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea





Asteazkeneko aurkezpenean 20 bat pertsona izan ziren, erdiak hautetsiak. Ideia ondu ondoren, lan bilera egin nahi dute. SGA

Bioenergia komunitateek ematen dituzten aukerek interesa sortu dute

Egurra etxetako berogailua eta ura berotzeko erabiltzen dituzte. Premia, aukera eta finantziazio gaitasunaren arabera, hainbat eratakoak izan daitezke. Irurtzongo aurkezpenaren ondoren atzera bildu eta gaia sakonago lantzeko eskaera egin zuten

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Europako Horizon 2020 programak finantzatzen du BECoop 2020-2023 proiektua (www.becoop-project.eu). Bere helburua da pertsonen ahalduntzean oinarrituta, bidezko energia sistema bat lortzea. Eta energia hori berogailua eta etxeko ura berotzeko erabiltzea da asmoa. Horretarako, bioenergia berriztagarria tokian-tokian sortzea da helburua. Grezia, Italia, Polonia, Danimarka, Brusela eta estatuko bazkideek daramate proiektua aurrera. Haietako bat da Goiener. Guztien iritzia da biomasa gutxiegi erabiltzen dela. Baina garbi utzi basoen kudeaketa jasagarrian oinarritzen dutela proiektua.

Proiektuaren berri emateko jardunaldia hartu zuen Dinabidek asteazkenean. Goienerko BECoop proiektuko buru eta

garapen departamentuko kide Pablo Castells Alonsok azaldu duenez, bioenergia komunitatean "herritarrak eta erakunde publiko eta pribatuak elkartzen dira eta biomasatik sortzen den energia termikoarekin zerikusia duen jardueraren bat egiten dute". Sakanari dagokionean, basoko egurra litzateke biomasa. Castellsek gaztigatu duenez, "gure lurraldeak energia mendekotasun handia du. Nafarroan kontsumitzen den energiaren ia %80 inportatua da. Biomasa tokiko produktua da, energia burujabetasuna ematen duena,

"BIOMASA TOKIKOA DA, ENERGIA BURUJABETASUNA ETA PREZIO EGONKORRA EMATEN DITU"

eta energia merkatuaren gora-beheretatik askatzen gaituena". Eta bioenergia komunitateen onura gehiago zerrendatu ditu: "gizartea ahaldundu egiten du. Jendea jabetzen da egiten duen kontsumoaz eta kontsumo arduratsuagoa egiten du, energia nondik heldu den ikusten baitu. Tokiko kontsumoaren ibilbide laburrak errazten du. Komunitatearen premiei ere erantzuten diete, esaterako, energia pobrezia. Eta, gainera, pertsona proiektu guztiaren erdigunean jartzen du, eta ez beste eredu batzuek duten diru etekina".

Komunitateetan udala edota kontzejua egoteak "batez ere hasieran, herritarrak batzea asko errazten du, proiektuei bultzada ematen die. Halako komunitate bat sortzean herritarren arteko kohesioa, jendearen parte hartzea hobetzen ditu",

esan du Castellsek. Toki era-kunderik gabeko bioenergia komunitateak ere badaude. Modu batera edo bestera, bioenergia komunitateek baliabide hori ustiatzeko eta komunitateari zerbitzua emateko entitate juridikoak sortzen dituzte, elkar-tea edo kooperatiba, "bakoitzak erabakitzen du. Goienerretik kooperatibak sortzea proposatzen dugu, gehiago errazten duela uste dugu. Baina ez da alternatiba bakarra".

Ereduak

Castellsek azaldu duenez, "baketik bestera kopiatu daitezkeen komunitate eredurik ez dago. Kideen artean erabakiko dute proiektua nola gauzatu". Fun-tsean ideia da "kideek emanda-ko egur lote horiek komunitateak eskura izatea. Baita jendearen gaitasunak ere. Kasu batean, esaterako, galdarara egurra botatzeaz arduratzen den pertsona jubilatua kuota txikiagoa ordaintzen du".

Bioenergia komunitate bakoitza sortzerakoan, lehenik, dauden premiak aztertzen dira. "Lehen egur lotea hartzen zuten pertsonak adinagatik utzi dute. Beste batzuk ez dute beharrezko tresneriarik. Premiak aztertu eta konponbide tekniko onena eta bideragarria zein den ikusi behar da. Zeren bero sare bat egiteak hasierako inbertsio handia eskatzen du (ur beroa eramateko tutuak lurpean sartu behar dira)". Bero sare handi-koak edo txikiagoak izan dai-tezke. Beste aukera bat izan daiteke komunitateak beraien etxeetan galdara bana jarri nahi duten bazkideei biomasa ematea. Beraz, hainbat aukera daude, eta, beti ere, "komunitatean dauden aukeren, premien eta finantziazio gaitasunaren arteko nahasketatik sortuko da eredu-a", laburbildu du.

Behin bioenergia komunitatea sortuta beste "hainbat zerbitzu eskain" ditzakeela gaineratu du. Esaterako, herriko galdara eta biltegia hartzen duen eraikinean komunitateak eguzki plakak jarri eta komunitatearen argin-

"AUKEREN, PREMIEN ETA FINANTZAZIO GAITASUNAREN NAHASKETATIK SORTUKO DA EREDUA"

darra autokontsumorako baliatzea. Edota gero eta energia gutxiago kontsumitzeko etxeen energia birgaitzea egiteko aholkularitza sortzea. BECoop proiektuaren barruan komunitateak sortzeko hainbat tresna lagungarri sortu dituzte eta www.becoop.fcirce.es/toolkit/ webgunean kontsulta daitezke (ingelesez).

Ekonomia

Finantzabideak bi dira: bazkideen kuotak eta tokiko, baso kudeaketako edo Europako funtsen bidez jasotako dirulaguntzak. "Komunitate horietako pertsonak kontsumitzaileak eta ekoizleak dira, eta beraien ohiko erregaien fakturretan aurrezpena izanen dute. Eta bioenergia komunitateari ordainduko dioten kuota aurreko faktura baino txikiagoa izanen da". Nabarmendu duenez, "energia merkatutik independente bihurtzen zara eta prezioen egonkortasuna duzu".

Italian Sakana moduko ibarrak galdara bakarrarekin berotzen dituzte. "Hangoek datu pare bat eman zizkiguten: erregai fosilekin euro bakoitzeko 0,23 zentimo gelditzen ziren eskualdean. Bioenergia komunitatearekin %70 eskualdean bertan gelditzen da. Hori oso garrantzitsua da, Sakanen ekonomia garapen esanguratsua sor baitezake", azaldu du Goienerreko kideak. Bestalde, halako komunitateak sortzeko, batzaz beste, 13 hilabete behar direla gatzigatu du.

Sakana

Udalek egur loteak kudeatzeko ordenantzak dituzte. "Komunitate ereduaren araberrako moldaketak egin beharko lirateke araudian. Herri bakoitzean komunitate txikiak sortuko balira ez legoke arazo handirik. Baina egurra udalerritik ateratzeko debekuarekin komunitate handiagoak sortzeko aukera zailtzen da. Baina konponbideak bilatu daitezke. Horregatik da hain garrantzitsua toki erakundearen parte hartzea". Adituak esan duenez, "Sakanarako eredu-a ez dago garbi. Aukeren garapenean bidea elkarrekin egitea, zer arazo dauden aztertzea, zein konponbide egon daitezkeen... Horretan ados zeuden saioan egon ziren sakandarrak. Nork bere aldetik jo beharrean, esperientzia partekatzeari balioa aitortu zioten. Gero erabaki egokiena den artean hartzeko".



'LGTBifobia kirolean errealitate bat da' ikus-entzunezkoaren une bat. JAVI GALEANO

Aniztasuna normalizatzen

'LGTBifobia kirolean errealitate bat da' ikus-entzunezkoa mustuko dute gaur, ostirala, Olaztiko kultur etxean, Urri Trans programaren barruan. Sakanako Mank-ek eta Kattalingunek abiatutako galdetegiaren ondorioak kaleratzen ditu

Erkuden Ruiz Barroso OLAZTI
Sakanako kirolean LGTBQ+ kolektiboaren errealitatea eza-gutzeko, Sakanako Mankomunitateko Ariketa Fisiko eta Kirol zerbitzuak eta Nafarroako Gobernuko Kattalingune LGTBI zerbitzuak proiektu bat martxan jarri zuten urtearen hasieran. Horretarako kolektiboaren parte identifikatzen ziren pertsonen galdetegi bat erantzun behar zuten. Galdetegi honetan kirolaren edozein alorretan homofobia kasurik bizi edo ikusi zuten, aurreiritziei aurre egin behar izan dioten eta abar galdetzen zen. Ondoren, proiektuan Berdintasun zerbitzua sartu zen ere.

Herritarrek inkestan emandako "iritzi eta ikuspuntuekin" sentsibilizazio dokumental bat sortu dute: "LGTBifobia kirolean errealitate bat da". Gaur, urriak 28, ostirala, 18:00etan, Olaztiko

kultur etxean aurkeztuko dute, Urri Trans programaren barruan. Ondoren, Deikumas taldeko argazki erakusketa izanen da ere. Transexualitateaz sentsibilizatzeko programa igandean amaituko da, *Meri, Mari eta Lari*

antzezlanaren emanaldiarekin, 17:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean.

Ikus-entzunezkoa Javi Galeano altsasuarrak sortu du. "Jendearen erantzun horiek bisualizatzen ditu bideoak". Erakun-

deen artean erantzunak amankomunean jartzeko bilera batean "makinatzen" hasi zen Galeano, eta herritarrek gaia ongi ulertzeko "zenbait puntu" atera behar zirela pentsatu zuen; besteak beste, LGTBifobia kirolean errealitate bat dela erakustea, LGTBifobia kasuak izan diren, aldagelen gaia... "Normalean ikusten ez dena ikusiko da ikus-entzunezkoan".

Sarrigurengo mutiko transexual bat eta Iruñerriko neska transexual bat aterako dira. Baita Juantxu Zabala Altsasu institutuko ariketa fisikoko irakaslea eta Olaia Eizagirre Etxarri Aranazko pala jokalaria ere. "Kasu batzuetan Sakanatik kanpora joan behar izan gara ez genuelako parte hartzeko prest zegoen jendea aurkitzen". Dabid Oroz Sakanako Mankomunitateko presidenteak instituzioen ikuspuntua ematen du. Entrenatzaileek, irakasleek eta politikariek gai honetan trebatzea "beharrezkoa" dela ondorioztatu dute. Futbola agertu "behar" zenez, Sakanako jendea agertzea saiatu ziren, eta bideoan futbolero irudiak agertuko direla esan du Galeanok. Baita futbolariak esandako "zenbait hitz klabe" ere.

Errealitatea

Kirolean "mugimendu eta genero aniztasun handia" dagoela ondorioztatu du Galeanok. "Ez da gizarteratzen dagoen mugimendu guztia, jendeak ez du ikusle bezala parte hartzen". Esaterako, Eizagirrek jokatu zuen Masters pala txapelketan publiko gutxi zegoela iruditu zitzaion, "eta oso ongi egon zen. Harrigarriak iruditu zitzaizkidan partidak". Ikus-entzunezkoaren egilearendako kirol "testoster-

nikoak eta maskulinoak" indar gehiago dute lehia oinarritzen direlako. "Nire ustez ez da dena irabaztea. Badago jendea bere taldea galtzen ari bada partidutik joaten dena. Geratu zaitez nola saiatzen diren buelta ematen ikustera. Ez da bakarrik zer jokatzen duten, baizik eta nola jokatzen duten".

LGTBifobia kirolean errealitate bat da ikus-entzunezkoaren bidea ez da erraza izan. Uztailaren kaleratzea aurreikusten zuten, baina hainbat arazo sortu dira ibilbidean, eta azkenean Urri Trans programaren barruan sartu dute. Uztailaren 18rako, LGTBifobiaren kontrako egunerako, kirolari ospetsuekin osatutako bideo labur bat publikatu zuten, "amu" moduan. Hamar minutuko "zerbait" izan behar zena, denborarekin ordu erdiko film labur bat bihurtu da. Lilasterketan hasi zen grabatzen Galeano.

Bideoaren helburua Sakanako kirolean dagoen aniztasuna normalizatzea da, "dibertsitatea existitzen dela eta kirolean dagoela". Xede hori "nahikotxo" badela esan du Galeanok. "Ondorioztatu dugun beste gai bat tradizioa da. Oso barneratuta ditugu tradizioak, eta hauek garaiko moralera eta bizimodura moldatu beharko lirake". Oraindik 2000 urteko "ohitura eta sinesmen heteropatrialkal" asko daudela esan du Galeanok: "Egiten jarraitzen dugu bakarrik tradizioak izateagatik". Bestetik, Kattalingune zerbitzuaren lana ezagutarazi nahi da ere.

Olaztiko mustutzearen ondoren bideoa sarean jartzea aurreikusten dute, eta ondoren ikastetxetan "eztabaida" sustatzeko erabilgarria dela esan du Galeanok.

BiLTOKi
TABERNA • JATETXEA

Eguneko
menua 11 €

Menu
berezia 15 €

948 562 348 - Altsasu

xapatero
taberna

Etxeko kroketak
eta bokatak

948 460 162 - Etxarri Aranatz

PORTUKO

Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz:
948 460 988

Hegoaldeko euskalgintza laguntzeko hiru kutxa aukeran

Errigoraren kutxen eskaerak azaroaren 10era arte egin daitezke www.errigora.eus-en eta ohiko tokietan

SAKANA

Errigorak hamargarren aldiz antolatu duen kanpainaren bidez Nafarroa hegoalde eta erdialdeko hainbat produktu makina bat etxeetara zabalduko ditu hiru kutxa motetan. Aldi berean, kutxa horien salmentaren %25 eremu bereko euskalgintzari bideratuko diote; ikastolek haurrak euskalduntzen segi dezaten, AEK-k helduen alfabetatzea susta dezan, Sortzen-ek D eredua bultza dezan eta Agerraldiak, bitartekoak izan ditzan eta euskararendako aro berri bat ireki dezan ere.

Udazkeneko kanpainaren leloa da *Bat egiteko garaia da*. Errigorakoek bat egitearena lau zentzutan ikusten dute. Batetik, badelako garaia euskarak lurraldean mugarik izan ez dezan eta herritar guztiek eskubide berak izan ditzaten. Bestetik, badelako garaia Nafarroa hegoalde eta erdialdeko sektore zabalak euskararekin berradiskidetzeko eta euskararendako aldeotasun berriak biltzeko. Errigorakoen iritziz, eskualdeko "geografia eta bizitzaren esparru guztietan euskaraz naturaltasunez aritzea dagokigu, euskara eta bizilagun-

nen behar zein interes askotari-koak ekuazioaren batugai bihurtuz gainera". Agerraldian "askoren artean, dagoena bultzatuz, eta ez dagoena sortzen" aritzen dela nabarmendu dute.

Horrekin batera, erdialde eta hegoaldeko euskaltzaleak bat egiteko garaia dela ere iritzi diote Errigorakoek. "nork bere eremuan eta bere tresnen bidez eremu zabal horretan euskalgintzak izan beharreko lehen-tasunak adosteko eta norabidea bateratzeko". Eta, azkenik, "euskal herritarrek eta eragileek Nafarroarekin bat egiteko garaia" ere badela uste dute. Errigoraren kanpainak elkartasunaz eta babesaz aparte, eremuko euskalgintzari ekonomia baliabideak eskaintzen dizkiola gaineratu dute.

Kutxak

Aurreko urteetan bezala, Errigorak udazkeneko kanpainan hiru kutxa eskaintzen ditu Nafarroa erdialde eta hegoaldeko 24 ekoizleren produktuz osatuta. Kutxa beltzak 55 euro balio ditu, berdeak (ekologikoa) 65 eta txuriak (berezia) 75. Guztietan heldu den urteko egutegia dago.

DUELA 25 URTE...



Altsasuko kioskoa bota zuten

Altsasuko Udalak, Foru plaza birmoldatzeko lanen barruan, kiosko zaharra botatzea eta berria eta handiagoa egitea aurreikusitua zuen. Altsasuar ugari gerturatu ziren plazara palak kioskoa lurrarekin nola berdintzen zuen ikustera. Aurreko kioskoa 1929an eraiki zuen udalak, han zegoen egurrezko kiosko bat ordezkatzeko. Kiosko berria, guztiz ez bazen ere, Santa Agedarako erabilgarri zegoen.

Dagoeneko Mintzakideko 12 talde sortu dira

Irurtzun, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranzatz eta Ziurdian daude euskara praktikatzeko taldeak, baina beste edozein herritan ere sor daitezke, izen ematea zabalik baitago; dohainik da

SAKANA

Euskara herrian bertan praktikatu eta, bide batez, jendea ezagutzeko aukera eskaintzen du Mintzakide programak. Hainbat arrazoiengatik sakandar askok ez dute euskara erabiltzeko aukerarik edo ohiturarik; izan daiteke ikasten ari direlako, ohituragatik beraien etxean edo lagun artean hitz egiten ez dutelako, ikasitakoa ahaztu dutelako... Mihiari herdoila kendu eta euskaraz hobe hitz egin nahi dutenek Mintzakiden izena emateko aukera dute.

Programa horrek hizkuntza praktikatzeko jende talde txikiak sortzen ditu, lau-pabost lagun. Haietako batek euskara gehiago daki eta bidelagun gisa aritzen da praktikatu nahi dutenekin. Taldekideen nahiaren arabera toki batean edo bestean elkartzen dira: elkarte, taberna, kafetegi, zinema, edota mendian edo paseatzen. Guztiei eskatzen zaien bakarra da asteen behin ordu batez euskaraz hitz egitea da. Izen ematea dohainik da. Aukera baliatu nahi duenak 600 482 024 telefonora Whatsapp mezua bidali edo sakana_mintza@ae.eus e-posta helbidera idatzi dezake. Sakanan euskara praktikatzeko talde gehiago sortzeko lanean daude sustatzaileak.



Mintzakideak Altsasuko mintzodromoan. ARTXIBOA

Sakanako Mintzakide taldeak

Herria	Eguna	Ordua	Tokia
Irurtzun	Asteartea	18:00	Iratxo elkarte
	Osteguna	09:00	Pikuxar
	Ostirala	19:00	Pikuxar
Uharte Arakil	Ostirala	17:30	Amaia okindegian
Lakuntza	Asteazkena	18:30	Jubilatu elkarte
Arbizu	Asteazkena	18:00	Kiroldegiko taberna
Etxarri Aranzatz	Ostirala	19:00	Xapatero taberna
Altsasu	Astelehena	10:00	Gure Etxea eraikina
	Astelehena	16:00	Gautxori taberna
	Osteguna (euskalkia)	20:00	Lezea Taberna
	Ostirala	09:00	Kaixo taberna
Ziurdia	Ostirala	16:00	Liburutegia

Sakandar berriendako doako euskara ikastaroa prest

Azaroaren 7tik martxoaren 15era izanen da ikastaroa eta 60 orduko iraupena izanen du

BURUNDA

Sakanako Mankomunitatearen Anitzartean Kultur arteko eta Euskara zerbitzuek oinarritzko euskara ikastaroa antolatu dute, dohainik. Sakandar berriei zuzendutako ikastaro horren bidez

sakandar berriek euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko aukera izanen dute. Ikastaroa azaroaren 7an hasi eta martxoaren 15ean despedituko da. Saioak astelehen eta asteazkenetan izanen dira, 09:30etik 11:30era,

nahiz eta izen eman dutenen ordutegira moldatzeko aukera egon den.

AEKren Altsasuko Itsasi euskaltegian emanen da ikastaroa. Izen ematea asteartera arte dago zabalik. Interesa dutenek anitzartean@sakana-mank.eus edo euskara2@sakana-mank.eus posta elektronikoko helbideetara idatzi edo 648 070 710 edo 948 464 840 telefonoetara hots egin dezakete. Mank-etik azaldu dutenez, plaza mugatuak dira. Izena eman ahala beteko dira plazak.

Frontoi zeharbide kaleko lanak aurreratuta

Langileak saneamendu sarea hobetzen ari dira. Zolatze lanak egin dira bi kaletan eta Ondarrian

ALTSASU

Altsasuko Udalak San Joan kaleko Frontoi zeharbideko 6. etxe zenbakiraino tartean saneamendua konpontzeko lanak eman ditu eta joan den astean hasi ziren. Langileen egitekoa da gaur egun dagoen kanalizazioa diametro handiagoa duen beste hodi batzuegatik ordezkatzeko. Izan ere, gaur egun dagoena behar baino txikiagoa da eta horrek arazoak sortzen ditu ur beltzak bideratzean. Saneamendu hodi berri zabalagoa jartzeaz aparte, San Joan kaleko saneamendu putzuarekin bat egingen du.

Lan horiek Excavaciones y Transportes Orsa enpresa egiten ari da. Eta harekin batera beste bi lan ere bere gain hartu zituen: Erkuden kalearen 375 m²-ko azaleran asfaltoa berritzea eta San Pedroko bidea kalearen 35 eta 43 zenbakien parean autoen aparkalekuko eta edukiontzia daukaten tokiko zoruan asfaltoa zabaltzea. Hiru lanen truke udalaren eskutik 84.712 euro (BEZ barne) jasoko ditu enpresak.

Bestalde, Construcciones Lacunza enpresak hiru lan eskuratu ditu. Batetik, Ondarria industrialeko B eta D kaleak konpontzen ari da (103.507 euroko aurrekontua). Bestetik, Amandrea plazaren zaharberritzeaz arduratuko da (469.960 euro). Eta, azkenik, Intxaurren plaza iparraldean ura hartzeko elementurik ez dagoenez, euria egiten duenetan putzu handia sortzen da, horrek oinezkoiei eragozpenak sortzen dizkie. Hori eragozteko lanak ere egingen ditu aipatu enpresak (9.750 euro).


Altsasuko Udalak beste lan batzuk ere eman ditu: futbol zelaiaren hesia konpontzeaz arduratuko da Excavaciones Macias (2.601 euro), Garbitoki erakin pareko espaloiko babes hesia aldatuko du Curvados Alzaniak (4.491 euro).

675.000 euro bi udal eraikin birgaitzeko

Irurtzongo musika eskolako energia birgaitzea eta irisgarritasuna hobetzeko eta Arbizuko eskola zaharren birgaitze integralerako izanen da dirua. Lanek 2024ko irailaren 30erako despedituta egon behar dute

IRURTZUN / ARBIZU

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresiliencia Planaren barruan Eraikin Publikoen Birgaitzea Bultzatzeko Programa (Tokiko Pirep) dago eta haren bidez Sakanako bi udalek 675.133,05 euro jasoko dituzte. Programaren helburua da energia eraginkortasuna eta ingurumen jasangarritasuna hobetzen laguntzea, eta, horretarako, berritu egingen dira energia berriztaezinaren kontsumoaren %30 baino gehiagoko murrizketa, irisgarritasuna, bizigarritasuna eta eraikuntza parkearen kontserbazioa.



Arbizuko eskola zaharrak. ARTXIBOA

Irurtzun

Udalak 252.105,44 euro eskuratuko ditu musika eskolaren energia birgaitzea eta irisgarritasuna hobetzeko. Lanen aurrekontua 286.228 eurokoa da (BEZ kanpo) eta hura osatzeko aldea udalak jarriko du. Egin beharreko lanak honakoak dira: teilatuan dagoen uralita kendu eta berria jarri, eguzki plakak jarri, fatxadetan inguratzaile termikoa jarri, Larraspi elkartean leihoak aldatzea (gainontzekoak aldatuta daude) eta eraikin barruan igogailua jartzea. Aitor Larraza Carrera alkateak esan duenez, "lanak heldu den urtean hasiko dira. Baina ehun ikaslelik gora dituen

musika eskolari ahalik eta eragin txikiena sortu nahi genioke".

Arbizu

Udalak 423.027,61 euroko dirulaguntza eskuratu du eskola zaharren erabateko birgaitzea egiteko. Eraikina 2019an utzi zion hezkuntza erabilera izateari eta joan den udalak egindako parte hartze prozesu baten bidez arbizuarrek erabaki zuten eraikinarikultura erabilera ematea. Horrela han ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, erakusketak, proiektzioak, kontzertuak... eta beste hainbat ekintza eta bilera egiteko leku izanen litzateke. Francisco Javier Razkin Flores alkateak jakinarazi duenez, "eraikinaren energia birgaitzea egin, barruko espazioen banaketa eta beste lan batzuk egingen dira". Razkinek jakinarazi duenez, "dirulaguntzak aurrekontuaren ia %100 ordaintzen du. Eta zerbait faltako balitz Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planaren bidez finantzatzeko genuke". Arbizuko Udalaren asmoa da lanak lehenbailehen egiten hastea, eta horretarako lanean hasi dira dagoeneko.

Liburu dasta

LITERATUR SOLASALDIAK IDAZLEEKIN



Liburua: Karena
Idazlea: Alaine Agirre
Abenduaren 1ean
UNANUKO Denok bat elkartean
18:30ean



Liburua: Petare:
Miren Eguigurenen puskak
Idazlea: Leire Ibarguren
Abenduaren 12an
ALTSASUKO Iortia kultur gunean
18:30ean

Mank
sakanak

aek

DENOK BAT
Elkartea

"Garrantzitsua da aurretik norberak egitea hausnarketatxoa"

GARIKOITZ GOIKOETXEA ETXEBERRIA EUSKARA TEKNIKARIA

Euskaraldiaren aurretik hitzaldiak ematen ari da. Haietan euskararen erabilera soziala handitzeko ariketa kolektiboaren zergatiak eta helburuak azaltzen ditu

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Euskaraldiaren atzera kontua hasia dago, ariketa kolektiboa egiteko eguna gerturatzen ari da. Astelehenean, despedituko da arigune gisa izena emateko epea eta norbanakoek ahobizi eta belarriprest roletako bat aukeratu eta izena emateko epea azaroaren 17an despedituko da. www.euskaraldia.eus webgunean edo herrietako Euskaraldia batzordeen bidez eman daiteke izena. Baina Euskaraldia zer den jakiteko jo dugu Euskara teknikariarengana.

Euskaraldiak 3. edizioa du. Lehenengoa bezain beharrezkoa da?

Lehendabizikoa bezain beharrezkoa edo are beharrezkoagoa dugu. Orain dela lau urte ikusi genuen Euskal Herriko zenbat eta zenbat herritan zer ilusioa sortu zuen Euskaraldiak, astindu bat eman zion euskararen normalizazio prozesuari. 2020an izan genuen bigarren Euskaraldia, pandemiaren osasun larrialdi betean, kaleko jarduna oso mugatua geneukan... Euskaraldiak ere nabaritu zuen, lehengoarekin konparatuta apalagoa izan zen. Hirugarren honen testuingurua 2018koaren antzekoagoa izan daiteke. Eta galderak: Nola aterako ote da? Zenbat jende hurbilduko da? Baina kopurua baino inportanteagoa da parte hartuko dutenak zenbateko aldaketa egitea lortuko duten. Euskaraldiaren helburua ez

baita horrenbeste jende kopuru handiak erakartzea, baizik eta hizkuntza ohituren aldaketa hori bultzatzea eta eginaraztea.

Kale erabilera neurketak berresten du halakoak beharrezkoak direla.

Hori da. Aurten eta datozen hilabeteetan ere jasoko ditugu euskararen osasunari buruz hainbat adierazleren emaitzak. Uda aurretik aurkeztu zen Euskal Herriko kaleko erabileraren neurketaren emaitza, gero eskualdeetan aurkeztu dena. Ondoren etorriko dira mapa soziolinguistikoaren emaitzak. Hau da, herriz herriko ezagutzaren eta etxeko erabileraren datuak jasoko ditugu, eta inkesta soziolinguistikoa ere bai. Beraz, sakon aztertu beharreko datu multzo oso zabala izanen dugu. Baina bai, egia da, argitaratutakoek joera bat erakusten digute: kaleko erabilera hortxe dagoela. 2000ko hamarkada inguruan gora egin zuen, 2010eko hamarkadan jaitsiera, eta 2021eko neurketak 2016koaren emaitza bera eman du Euskal Herrian.

Baina...

Datuek argi esaten digute badaukagula zertan eragin, eta zertan

"ARIKETA EGIN, BAINA BESTE EREMU ASKOTAN ERE ERAGIN BEHARRA DAUKAGULA AHAZTU GABE"

eragin eremu askotatik. Euskaraldia ariketa oso interesgarria da, hizkuntza ohiturak direla dauzkagun erronketako bat. Baina Euskaraldiari ere ezin zaio eskatu, ezta Euskaraldian parte hartuko duten herritarrei ere ezin zaie eskatu, euskararen gaitz guztiak 15 eguneko ariketarekin sendatzea. Euskaraldiak garrantzia handia du, egin dezagun ariketa hori. Ahal dugun gehienok eta ahal dugun hobekien. Baina beste eremu askotan ere eragin beharra daukagula ahaztu gabe.


Zergatik sortu zen Euskaraldia?

Abiapuntuan hainbat faktore daude. Batetik, aipatutako geldialdi zantzuak. Ari gara pauso batzuk ematen, batez ere euskararen ezagutza. Baina erabileran eragiteko beste zerbait berriaren beharra nabari da. Behar bat zegoen. Bestetik, aurretik hizkuntza ohituren inguruan ariketa interesgarriak egin ziren: Lutxo Egiak Bilbon egun batzuez gaztelaniaz jakingo ez balu bezala bizitzea, Donostiako Egia auzoan, Agurainen eta Lasarte-Orian. Beraz, herrigintzatik eta euskara elkarrekin ari zen sortzen norbanakoen ohituretan eragiteko ariketak. Alde teorikoa ere ari ziren garatzen, Soziolinguistika Klusterraren bidez *Aldahitz* ikerketan, Pello Jauregi buru zela. Hiru erpinak uztartu ziren: beharra, herri ekimenaren ari-

ketak eta ariketa horien euskarri teorikoa.

Izena emateko garaian bada jende bat, "bai, baina..." esaka. Zergatik eman beharko luke izena?

Euskaraldia ez da hutsetik abiatuko den zerbait herritar euskaldun gehienondako. Aurreko bi urteetako esperientzia eta balantzea ditugu. Baina norberaren bizipenek ere eragin handia daukate Euskaraldiarenganako jarreran. Gutxienez bi joera dauzkagu. Batetik, Euskaraldian parte hartu dutenak eta lortu dutenak, gehiago edo gutxiago, hizkuntza ohiturak aldatzea. Izan daiteke hurbileko pertsona batekin, ezezagunekin edo lehen hitza euskaraz egiteko ohitura handiagoa hartu dutelako. Badira ere aurreko bietan aldaketa esanguratsurik lortu ez zutenak, edo behintzat ez zuten sumatu beren jarduna edo bere inguruaren jardun asko aldatu denik. Horrek asko eragiten du hirugarren Euskaraldian, norberak daukan espektatibetan edo duen itxaropenean. Izena emateko alferkeria daukatenei esan behar zaie, batetik, ariketa sozial honetan garrantzitsua dela norberak egiten duenaz gain taldean, modu bestean, egindakoa. Guretako ari gara, baina besteak laguntzeko ere. Gure buruari ariketa jartzeaz aparte, zenbat eta jende gehiagok paparrean txapa eraman, orduan eta errazagoa izanen da ariketa besteendako. Izena ematea ariketa pertsonala izateaz aparte, ariketa kolektiboa da. Kolektiboki konpromisoa azaltzeko modua ere bada. **Beharbada komeni da alde aurretik helburu jakin batzuk zehaztea?** Aurretik norberak hausnarketatxo bat egitea garrantzitsua da: "badatzo 15 egun hizkuntza ohituretan aldaketak egiteko. Non jarriko dut nik arreta? Zertan daukat aukera hizkuntza ohituretan aldaketa bat egiteko?" Emaitza egoki baloratzeko norberak ariketa hori egin behar du: ikusi nun daukan hizkuntza ohituretan aldaketak egiteko aukerak edo premiak. Biak izan daitezke, aukerak edo premiak. Egin dugun gogoeta horretan oinarrituta, egunak aurrera doazen eran, garrantzitsua da ikustea aldaketa lortzen ari naizen edo ez, zergatik ez naiz lortzen ari... Izan dadila ariketa kontziente bat. Oso garrantzitsua da kontziente izatea ariketa hasi



Garikotz Goikoetxea Etxeberria Altasuko Foru plazan.

aurretik, ariketa egin bitartean eta ondoren, azkeneko egunean daukagun pertzepzio hori ahalik eta errealistena izan dadin. Denoi azalduko zaigu, gehiago edo gutxiago, aldaketak egiteko aukeraren bat. Lehen hitza euskaraz egitearen garrantzia handia, esate baterako. Horren garrantziak bi alde ditu: lehen hitza euskaraz eginda lortuko dut nik euskaraz gehiago egitea, baina gainontzekoei euskara eskainiko diet. Gainerakoei lehen hitza euskaraz egiten baldin badiet, euskarara gonbidatuko ditut.

Ur tantek itsasoa sortzen dute.

Hori da. Ariketa pertsonala baina kolektiboa da. 2018an Euskaraldi batzordeetan inork gutxi zekien zenbatek emanen zuten izena, edo kalean zenbateraino ikusiko ote zen Euskaraldia. Eta 225.000 lagunek eman zuten izena eta 2020an 180.000 inguru. Euskaraldiak muga bat dauka: gutxienez euskararen ulermena eskatzen delako belarriprest eta ahobizi rola izateko. Euskal herritar guztiak ezin dute parte hartu. Azkeneko datuen arabera, 16 urtetik gorako herritarren



hitzaldia eman aurretik.

%55 dira, gehiengoa. %45 da Euskaraldian parte hartzeko gai, gutxi gorabehera 750.000 lagun. Horietatik 225.000k modu kontzientean izena eman zuten ariketa honetan. Beraz, testuingurua inportantea da. Portzentajea begiratuta, aukera zuten herriarren ehuneko oso esanguratsuak eman zuen izena. Eta aurren ere espero dugu jendeak emango duela izena. Eta kopuruetatik eta zifretatik harago, inportantea dela ariketa hori modu kontzientean eta ahal den aldaketarik handiena lortzeko asmoz egitea.

Zergatik da garrantzitsua Euskaraldia hirugarrenez egitea?

Hutsuneak eta indarguneak daukagu. Hutsunea kaleko eguneroko erabileran dugu eta hor eragiteko premia dugu. Erabilera bultzatzeko ariketa bat da Euskaraldia. Bestetik, euskararen aldeko kanpaina asko egin izan dira. Aldekotasuna erakustetik harago, Euskaraldiaren proposamena da ariketa praktiko bat egitea: ahal den leku guztietan euskaraz egitea. Horrek badu garrantzia. Gainera, euskaldunok

elkartzeko, euskaldunok hemen gaudela esateko modu bat ere bada. Bai euskaldunoi: "hemen gaude, ari gara, badaukagu nahia, eta egingo dugu denon artean". Baina baita ere populazioaren gehiengoa diren erdaldunei begira. Milaka lagunek parte hartzen duten ariketa bat baldin bada, erdaldunek ikusiko dute jendea txaparekin, hedabideetan presentzia bat ikusiko dute. Haiek ere ikus dezatela hemen euskaldunak badirela eta badagoela herri gogo bat euskararen erabilera benetan bultzatzeko. Horri ere erreparatu behar zaio, batez ere Euskal Herriko testuinguru soziolinguistiko erdaldunagoetan. Hor txapak daukan inportantzia erabilerari begira, lehen hitzari begira, hizkuntza estresari begira, baina baita erdaldunei begira ere.

Zer lortu da orain arte?

"ZENBAT ETA JENDE GEHIAGOK TXAPA ERAMAN, ORDUAN ETA ERRAZAGOA IZANEN DA BESTEENDAKO"

Ariketan parte hartu dutenen ehuneko esanguratsu batek lortzen duela hizkuntza ohitura batzuk aldatzea. Erronka izango da aldaketa horri ea nola eusten diogun denboran aurrera egin ahala. Baina lorpenetan, lehenik eta behin ariketa bera antolatu izana aipatu behar dugu, euskaltzaleak nola mobilizatu diren ariketa hau posible egiteko. Gizarte ehun hori nola indartu, nola elikatu erronka bat da. Nazio ikuspegia ere aipatu behar da. Euskal Herrian, zoritxarrez, ez daukagu ekimen eta ariketa asko Euskal Herri osora hedatzen direnak eta Euskaraldia horietako bat da. Hizkuntza normalizazioaren ikuspegitik mahai-gainean beste ikuspegi batzuk jarri ditu: lehen hitzarena edo ulermenarena. Hau da, ez da euskaraz hitz egiten badakizun ala ez dakizun, tartean beste kolore batzuk ere badaude. Badagoelako populazio multzo gero eta handiagoak euskaraz hitz egiteko nola-halako gaitasuna eduki arren, badaukala gaitasuna euskaraz ulertzeko eta, beraz, horiek ere izan dezaketela euskaldunen

erabilera errazteko rol bat, erdarara ez pasatzea.

Orain arte izandako lorpenak ikusgarriak dira?

Erronka batzuk dauzkagu. Euskalgintzan askotan sumatu dut nahi eta ezin bat eta horrek ekartzen digu ezkortasun giro bat. Ez dut esango ezkortasun horretarako motiborik ez dagoenik, baina uste dut gure diagnostikoetan tentuz jokatu behar dugula. Errealitatea ikusi behar dugu. Esaterako, askotan mantra baten gisan errepikatzen den kontu bat da euskararen ezagutza gora doala eta erabilera ez. Horrela esanda ematen du euskaldunek euskararekiko gero eta atxikimendu txikiagoa daukatela edo euskaldunek ez dutela euskaraz egin nahi. Horrelako esaldiak formulatzen ditugunean interpretazio okerretarako bidea

ematen du, eta ezkortasunerako bide bat ere ekartzen digu. Erabileraren auziari dagokionez, kontuan izan behar dugu testuingurua zein den. Ikusi behar dugu harreman sareak nolakoak diren, euskaldunen hizkuntza ohiturak eta erraztasuna nolakoak den, gaitasuna nolakoak den... Beraz, mahai gainean hainbat alderdi jarri behar ditugu daukagun diagnostiko hori ahalik eta osatuena izan dadin, eta zuzenean etsipenera joan ez daitezen. Bestetik, Euskaraldiak balio behar digu euskaldunoi hemen gaudela esateko. Bestalde, Euskaraldiari ere ezin diogu gure gaitz guztiak sendatzeko eskatu. Euskaraldiaz aparte, badaukagu eragin beharreko eremuak: hizkuntza eskubideak, aisialdia, Hezkuntza... Beste erronkak ezin ditugu mahai gainetik kendu.

berria ekitaldiak

Pasadena KONTZERTUA

Azaroak 5
Larunbata • 19:30

Altsasu
Iortia kulturunea

Sarrerak:

- Aurretik 12€ (BERRIAlagunek 10€)
- Egunean, 14€ (BERRIAlagunek 12€ - txartelarekin)

Sarrerak salgai:

- BERRIAn: [Berria.eus/berrialaguna/denda](https://berria.eus/berrialaguna/denda) helbidean edo 943-30 43 45 telefonora deituz.
- Iortia kulturunean eta www.iortiakultura.com helbidean.

Antolatzailea:

berria

BADOK

Mank

Laguntzaileak:

Herriaren Gaitasuna

Altsasu

Araztegiko lanak emateko deialdi berria

Paleolitikoko aztarnak agertzeak proiektua geldiarazi zuen 2020ko garilean. Ur zikinak garbitzeko azpiegitura berri eta handitzeko lanak negu bukaeran hasiko dira. Gaur egungo araztegiak 30 urte ditu eta bere ahalmena gainditzetik gertu dago

OLATZAGUTIA

Hondakin urak arazteaz ardura-zen den Nilsa enpresa publikoak Olatzagutiko araztegia berritzeko lanak emateko deialdia egin du. Lanek 2.134.816,2 euroko aurrekontua dute (BEZ kanpo). Lanak egiten interesa duten enpresek asteleheneko 10:00etara arteko epea dute eskaintzak egiteko. Araztegia berritzeko lanak emateko bigarren saiakera da, aurrekoa 2020eko garilean egin eta lanak eman zituen. Baina Nafarroako Gobernuak han arkeologia ikerketa egitea eskatu zuen eta horrek guztia gelditu zuen. Irailaren 13an gobernuak baimena eman ondoren, Nilsak, atzera ere, lanak emateko deialdia egin du. Oraingo deialdiko aurrekontua lehenengoa baino 76.087,56 euro garestiagoa da.

Olatzagutiko araztegiak 30 urte ditu. Baina gero eta ur gehiago garbitu beharra duenez, Nilsak 2005ean eta 2015ean erreformak egin zituen. Hala ere, azpiegiturak eguneratzea behar zuela iritzita Nilsak Olatzagutian araztegi berria egitea erabaki zuen. Araztegi berriak ur zikinen 15,63 litro segundoko emaria tratatu ahal du batz bestea, 1.350 metro kubiko eguneko. Gehienez ere 46,9 litro segundoko hartzeko gaitasuna izanen du. Gaur egungo ur araztegia lanean arituko da, berria egiten duten bitartean. Eta egungoa azken momentuan kenduko dute, Olatzagutiko ur zikinak garbitzeko. Egungoaren tokian ur baltsa bat jarriko dute. Hondakin uraren tratamenduari akaberako elementu bat izanen da baltsa. Hau da, han egonen da araztutako ura denbora batez Arakil ibaira bueltatu aurretik.

Arkeologia indusketak

Ur saneamendu azpiegitura berriak gaur egungo espazioa eta aldamenen dagoen Ornako iturriaren ondoko beste espazio bat



Arkeologoek araztegi ondoan ikertzeko egindako lubakiak 2021eko udaberrian.

AIRE ZABALEKO ARKEOLOGIA AZTARNATEGI PALEOLITIKO BAT AURKITU ZUTEN

hartuko du. Koskobilo II lezearen aurkikuntzak planak aldatu zituen. Nilsak 2020ko abenduaren 11n lanak eman zizkion enpresa hartzaileari. Baina abenduaren 15ean udalak Arantzadi zientzia elkartearen txostena aurkeztu zuen adieraziz araztegiaren inguruan arkeologia aztarnak egon zitezkeela. 2021eko abenduaren 18an gobernuak egoki jo zuzen ikerketa egitea.

Arkeologoek 2021eko apirilean eta maiatzean egin zuten ikerketa eta araztegia zabaldu behar zen tokian Paleolitikoko aztarnak opatu zituzten. 2021eko lastailean eta azaroan ikerketa sakonagoak egin zituzten. Ondorioa: Ornako iturriaren inguruan aire zabaleko arkeologia aztarnategi Paleolitikoko (duela 12.000-10.000 urtekoa, Arantzadi datatzeko zain dago) bikain bat opatzea, baina uraren erosioagatik oso

gaizki kontserbatua dagoena. Horrek indusketa integrala egitea ekarri zuen. Han landutako Urbasako silexa eta ikatz aztarnak agertu ziren.

Gobernuak ondorioztatu zuen ez zegoela katalogatutako ondarririk eta araztegia egiteko lanei baimena eman die. Hala ere, lanei arkeologia jarraipen estua egitea eskatu du. Horregatik, lurpeari eragiten dioten lur mugimenduak egiten diren bitartean, kontrol egokia izateko, arkeologia teknikari batek gainbegiratuko ditu lanak. Arkeologia egitura edo aztarnak agertuz gero, kaltetuak ez izateko, mugatu eta balizatu beharko ditu enpresak. Aurkikuntzen berri Nafarroako Gobernuari jakinarazi beharko zaio.

Joseba Vizuite Askargorta Olatzagutiko alkateak jakinarazi duenez, araztegia lekuz aldatzeko aukera aztertu zuen udalak. Alkateak zehaztu duenez, "araztegia dagoen tokia herri lurrak dira, ingurukoak jabetza pribatua. Jabeek galdetu genien saltzeko interesa ote zuten, eta batzuk baietz eta besteek ezetz". Aurreikusitako tokian egiten da, beraz, araztegia.

Gure Nahia elkartearen bazkide eguna bueltan da

Larunbatean ospatuko dute, 13:00etatik aurrera. Kontzertua, bazkaria eta dantzaldia prestatu dituzte

LAKUNTZA

Pandemiak eragindako hiru urteko etenaren ondoren, Lakuntzako Gure Nahia jubilatuko elkarteak bazkide eguna ospatuko du. Egitaraua Barañaingo abesbatzak emanen duen kontzertuak zabalduko du. Iruñerriko ahots taldearen emanaldia elizan izanen da eta 13:00etan hasiko da. Bazkideak bazkaltera 14:30ean elkartuko dira. Guztira 118 pertsonen eman dute izena. Majo bazkaldu ondoren, azken hiru urtetan urrezko eta diamantezko etzeiak egin dituztenei aipamena egingen diete. 50 urte ezkontuta egin dituzten hamar bikotek jasoko dute aitortza eta beste bik 60 urte edo gehiago ezkontuta daudelako. Segituan udaberriko mahai joko txapelketako sari banaketa egingen da. Eta ospakizuna behar bezala borobiltzeko Ricardo Aretak dantzarako doinuak jarriko ditu.

Gure Nahia elkarte arduradun Sokorro Artiedak azaldu duenez, "bazkide eguneko deialdia ilusioz hartu dute, jendeak zerbait ospatzea behar zuen". Azaldu duenez, Gure Nahia elkarteak 224 bazkide ditu, "eta

jende berria sartu da" jakinarazi du Artiedak. Bakarren batek bazkide nahiko balu elkartetik pasatzea besterik ez du. Gure Nahia elkarteak Larrañeta kaleko 16. zenbakian du egoitza, hau da, Lakuntzako kultur etxean bertan. Elkartearen jardunari dagokionez, orain arteko jardueratan 105 pertsonak parte hartu dutela gaztigatu du Artiedak. Kopurua handitu egingen da, izan ere, gaur egun pilates, gimnasia eta zahartze aktiboa ikastaroak dituzte, azken horretan 17 pertsona daude izena emanda. Bestalde, udazkeneko mahai joko txapelketak martxan dira. Partxisean hamar bikote ari dira neurtzen, briskan sei eta musean hamalau. Azken txapelketa hori ilbeltzean despedituko da, gainontzekoak aurtan.

Azkenik, Gure Nahia elkartearen eskaintzaren barruan ere bidaiekin antolaketa ere badago. "Azaroan Bordelera egun pasa joanen gara, eguberritako merkataria ikustera. Eta ikasturteko bidaia handia maiatzan egingen dugu, Herbeheretara joanen gara. Dagoeneko 40 pertsonen eman dute izena".

Giza Eskubideen aldeko ipuin bat idazten Uharten

Nafarroako Gobernuaren ekimena da. Castillo Suarezrek euskarazko ipuinaren hasiera idatzi du

UHARTE ARAKIL

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren *Ipuina eskuz esku Giza Eskubideak* ekimena hilaren 13an abiarazi zuten Patxi Irurtzunek eta Castillo Suarezrek. Bakoitzak ipuin baten hasiera idatzi zuten, aurrenak gaztelaniaz, atzenak euskaraz. Batak eta besteak hasitako ipuinak ikastetxez ikastetxe pasako dira egunero. Zentro bakoitzean Lehen Hezkuntzako ikasleek ipuinari paragrafo bat edo bi gehituko dizkiote. Bi kateak azaroaren

11n bukatuko dira. Eta emaitza bi ipuin kolektibo izanen dira.

Giza Eskubideen inguruko hilabeteko lana, dedikazioa eta gogoetaren eta ikasleen eta irakasleen parte-hartze zuzen eta aktiboaren ondoren, gobernuak bi ipuinak liburu batean argitaratuko ditu. Gainera, abenduaren 10ean, Giza Eskubideen nazioarteko egunean, Iruñeko Gaztelu plazan, ikasleek liburuaren aurkezpenean parte hartuko dute. Bi ipuinak hiru emakumezko kontatu eta interpretatuko dituzte.

FUTBOL PREFERENTEA

7. JARDUNALDIKO EMAITZAK		
Altsasu - Soto Ibarbaso		2-4
Burladés B - Etxarri Aranatz		4-3
Lagun Artea - Valle de Egües		0-2

SAILKAPENA		
PREFERENTEKO 1. MULTZOA		
1	Beti Casedano	17
7	Altsasu	11
11	Etxarri Aranatz	9
17	Lagun Artea	3

HURRENGO JARDUNALDIA		
LARUNBATA, URRIAK 29		
15:30	Valle de Egües - Altsasu (Sarriguren)	
16:00	Etxarri A. - Aibares (San Donato)	
17:00	Doneztebe - Lagun Artea (I. Indart)	

Altsasu, Sarrigurenen altxatzera
Azken jardunaldian gorritxoek Soto Ibarbaso taldearen kontra porrota jasan eta gero, Valle de Egüesen kontrako partidarako sentsazio onak berreskuratu nahi dituzte.

Etxarrik Aibares aurkari etxean
Azken unean galdutako partidaren arantza kenduta, Aibaresen kontra bere bertsiorik onena eskaini nahi du Etxarri Aranatzek.

Lagun Artea Doneztebera
Lagun Arteak talde ia eraberritua du aurten eta hobetzen ari dira, baina puntuak behar dituzte.

PREFERENTEA EMAK.

5. JARDUNALDIKO EMAITZA		
Altsasu - Gazte Berriak		5-0

SAILKAPENA		
EMAKUMEEN PREFERENT. 1. MULTZOA		
1	Mutilbera	15
6	Altsasu	6

HURRENGO JARDUNALDIA		
IGANDEA, URRIAK 30		
16:30	Altsasu - Marcilla Aurora (Dantzaleku)	

Altsasuk gol festarekin segi nahi du
Igandean Marcilla hartuko du Altsasuk, larunbateko gol festa ahaztu ezinik.

FUTBOL ERREGIONALA

6. JARDUNALDIKO EMAITZA		
Amaya - Altsasu B		3-1

SAILKAPENA		
ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA		
1	Beti Onak B	16
9	Altsasu	7

HURRENGO JARDUNALDIA		
IGANDEA, URRIAK 30		
12:45	Altsasu B - Beti Onak B (Dantzaleku)	

Altsasuk liderra hartuko du
Altsasuk Beti Onak B liderra hartuko du lehiatua aurreikusten den partidan.

Pilotazaleen begi guztiak
Labritera begira

PILOTA Ezkurdiaren eta Lasoren larunbateko partidak aparteko ikusmina piztu du, Lau eta Erdiko finalerdietara bietako nor pasako den baitago jokoan. Lasok Ezkurdia jotzen du faborito, kaiolan arbizuarra hiru aldiz gailendu zaiolako

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU
Lau eta Erdiko Txapelketa zere-san handia ematen ari dela ezin da ukatu. Elordi kiniela oso gutxietan agertzen zen, baina pilotari bizkaitarrak meritu handiz lortu du finalerdietara sailkatzea, Ezkurdia eta Laso faboritoak bidean utzita. Balentria itzela.

B multzoan finalerdietara sailkatuko den beste pilotaria Ezkurdiak eta Lasok larunbatean Labriten jokatu duten partidatik aterako da. Bi oilar, moka, desafio itzelean. Ezkurdiak lau eta erdiko bi txapela ditu eta espezialista handia da. "Ezkurdia da faborito, kaiolan elkarren kontra jokatu ditugun partida guztiak irabazi dizkidalako" zioen Lasok material aukeraketan. Lasok lau eta erdian ez du txapelik baina arerio gogorra da. "Lasok Buruz Buruko finala irabazi zidan, partida garrantzitsuena. Bera da faborittoa" banatu zituen ardurak Ezkurdiak.

Partidak, jakina, katedraren ikusmina piztu du eta Labriten final handien giroa espero da. Dirua parean aterako da, Lasoren aldeko tendentzia laburrarekin.

A multzoan Peio Etxeberria finalerdietarako sailkatuta dago. Altunak eta Dariok jokatu duten partidak erabakiko du beste sailkatua.



Unai Lasok eta Joseba Ezkurdiak larunbaten jokatu dute Lau eta Erdiko Txapelketa.

Bakaikoa, promesen finala jokoan

Joanes Bakaikoak Promesen Lau eta Erdiko txapela defendatzen du aurtengo txapelketan, joan zen urteko txapelduna izan baitzen. 2018ko txapela ere berea da. Aurrelari etxarriarra bigarren mailako kaiolako bere hirugarren finala jokatzeke atarian dago, azaroaren 1an, asteartean, 2022ko Promesen Lau eta Erdiko finalerdia jokatu baitu Berrizen, Egiguren V.aren kontra.

Palmaresari eta aurten erakusten ari den maila bikainari jarraiki, Bakaikoa da faborito nagusia, orain arte ez baitu akatsik egin. Final laurdenetako ligaxkan Zabalari 22 eta 21 irabazi zion, Exposito 7 tantotan utzi zuen eta Alberdi 4 tantotan. Egigurenen kontrako finalerdia hil ala biziko partida izango da, azaroaren 12an Labriten jokatu den finalean egotea baitago jokoan.



Asteko entrenamendua. XOTA

ARETO FUTBOLA Osasuna
Magnaren hitzordu garrantzitsua

Osasuna Magna Xotak partida garrantzitsua du gaur, ostirala. Imanol Arregiren taldeak Cordoba hartuko du Anaitasunan, 20:00etan (LaLigaSportsTV), eta talde berdeak denboraldiko lehen garaipena lortu nahi du behingoz.

Osasuna Magna talde gaztea da, baina nortasuna duena, eta ongi jokatzen ari da, baina kontrako atean asmatzea eta partidak ongi ixtea da falta zaiona. Azkeneko jardunaldian Santa Colomaren kontra sekulako aukerak izan zituen, baina talde kataluniarreko Mario Almagro atezainak, Xotako jokalaria ohia, hain zuzen ere, guztia gelditu zuen eta punturik gabe itzuli ziren irurtzundarrak. "Irabaztea me-rezi izan dugu. Partida hau galtzea sinestezina da. Gol aukera argien kontua ere galdu egin dut, baina baloiak kontrako atean sartu behar dira" azaldu zuen Imanolek.

Xota beheko postuetan dago eta talde berdeak gora begiratu nahi du. Horretarako zaleen baba beharko dute.

Berazaren, Munarrizen eta Razkinen Basajaun Traila

MENDI LASTERKETAK Beraza bigarren izan zen 23 km-ko proban eta Munarriz eta Razkin laugarren 43 km-koan

Galdeanok Lokizko mendizerran jokatutako Basajaun Trail Race lasterketa hartu zuen urriaren 16an. 23 kilometroko proban lehia bizia izan zen, eta azkenean Jose Luis Beraza bigarren sailkatu zen (2:02:02), Pablo Gonzalezen

atzetik (1:59:10). Horretaz gain, lehen beteranoaren saria jaso zuen "oso pozik" dagoen uharte arakildarrak. "Oso kontentunago, joan den urteko denbora 4 minututan jaitsi dudalako. Nire kirol ibilbidean izan ditudan sentsa-

ziorik hoberenak sentitu nituen Lokizen, eta hori asko esatea da, 53 urte ditudalako" nabarmendu du Berazak. Hanketan pandemia aurretik zuen "txispa" berreskuratu duela gaineratu du.

43 kilometroko proba Jokin Lizeagak irabazi zuen, nagusitasunez (3:51:56). Aritz Munarriz etxarriarra laugarren sailkatu zen (4:33:48). Emakumezkoetan Naiara Irigoienek erakustaldia eman zuen (4:44:36) eta Amaia Razkin uhartearra laugarren sartu zen (4:59:30).



Beraza, podiumean. UTZITAKOA



Iosu Mendiola Marañoñ entrenatzailea, astearteko entrenamendurako azalpenak ematen.

CBASK: neska seniorren itzulera

SASKIBALOA Urte asko pasa behar izan dira atzera ere Altsasuko CBASK saskibaloia taldeak 18 urtetik gorako emakumezkoen senior taldea izan dezan. Orain taldea sendotzea da erronka, iraupen luzea izan dezan. Jokalariak eta entrenatzaileak gogotsu daude

Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Altsasuko CBASK saskibaloia klubak garai ederrak bizi ditu. Neska-mutil askok saskibaloian trebatzea aukeratu dute ikasurte berrian, harrobia indartsu dator, gizezkoen senior mailako bi taldeek ongi ekin diote 2022/2023 denboraldiari –bai Bigarren Maila Interautonomikoan dabilen Narum CBASK taldeak eta baita Bigarren Senior Autonomikoan jokatzen duen CBASK Ifuelek ere–, eta aspal-diko ametsa gauzatu da: emakumezkoen senior mailako taldea sortzea.

CBASK taldeak urte asko zeramatzan emakumezkoen senior mailako talderik gabe, 10 urte luze. Neska askok jokatzen dute

saskibaloian Altsasun, baina adinagatik junior mailako taldean bukatu ondoren, 18 urtetik gora, ez zegoen ezer. 18 urtetik gorako emakumeek ez zuten CBASK-en saskibaloian non aritu. Jokalariak, klubak eta teknikariak egindako ahalegin handiaren fruitua da sortu berri den CBASK Xabi Gorritz Tattoos emakumezkoen senior mailako taldea, Emakumezkoen Lehen Senior Maila Autonomikoan lehiatzen hasi dena, bigarren multzoan.

"TALDEA PIZTEKO GRINAK BULKATU NINDUEN TALDEAREN ARDURA HARTZERA" IOSU MARAÑOÑ

Grinak bulkatuta

Joan zen urtera arte gizezkoen Bigarren Maila Interautonomikoan entrenatzailea zen Iosu Mendiola Marañoñ arbizuarrak hartu du emakumezkoen senior taldea entrenatzeko ardura. "Taldea pizteko grina horrek bulkatu ninduen taldearen ardura hartzera. Taldea sortu nahi zuten jokalariek zeuden, proiektua aurrera ateratzeko gogoia zegoen, baina ez zegoen entrenatzailearik. Eta proiektuari bultzada hori emateko taldea entrenatzeko erabakia hartu nuen" azaldu du Mendiola, Zelandi kiroldegiko aldageletan

astearteko entrenamendua prestatzen ari dela. Igor Martinez Lumbreras CBASK-eko jokalaria ohia du laguntzaile. "Taldea sortu berria dela kontuan hartuta, gainontzekoak baino lehenago hasi ginen entrenatzen, abuztuaren hasieran" gaineratu du Marañoñek.

Haren alboan Ainhoa Etxaiz San Roman eta Ane Zubiria Ciordia jokalariek daude. Pozik daude, askorendako saskibaloian jarraitzeko bide bakarra baita seniorren taldea sortu izana, "adinagatik ezingo genukeelako juniorren taldean jarraitu, baina orain senior taldea sortu da eta saskibaloian jarrai dezakegu. Jubenilen CBASK taldetik igo naiz, eta hau da nire lehen urtea senior mailan" dio Ane Zubiriak. Hori da taldeko jokalaria gehien kasua, juniorretik igo direla. Ez da Ainhoa Etxaizen kasua. "Txikitatik CBASK-en jokatu nuen eta gero Iruñera joan nintzen jokatzen, baina azkenean hiruzpalau urtetan ez dut jokatu. Orain senior taldea

"AZKEN URTEETAN EZ DUT JOKATU, BAINA TALDEA SORTU IZANAK ANIMATU NAU" AINHOA ETXAIZ

sortu denez, berriro saskibaloian aritzera animatu naiz".

Konpromisoa

CBASK Xabi Gorritz Tattoos izena hartu du sortu berri den taldeak, eta Emakumezkoen Lehen Senior Maila Autonomikoan lehiatzen da "bertan lehiatzeko maila dugula uste dugulako. Eskaera egin, federazioan onartu zuten eta bertan lehiatzen ari gara" dio entrenatzaileak. Hasi berriak dira, eta oso gazteak dira, baina talde polita osatzen ari dira. 13 jokalaria dira, eta tarteka azpiko kategorian jokatzen duen jokalaria batek ere eurekin jokatzen du. "Zintzoak dira, konpromisoa dute" dio Mendiola. "Eta gu gustura gaudela, oso" erantzun diote jokalariek.

Momentuz hiru jardunaldi jokatu dituzte eta garaipen bat eta bi porrot izan dituzte. Lehen jardunaldia etxean jokatu zuten, eta 64 eta 51 irabazi zioten San Ignaciori. Bigarrena galdu egin zuten, 52 eta 32, Larraona Claretren kontra, eta larunbatean Zelandin jokatutako partidaren 55 eta 57 galdu zuten Universidad de Navarraren kontra, "bi punturengatik, saskiratze bakarrengatik" penatu dira jokalariek. "Ni pozik nago. Talde berria garenez, esperientzia faltagatik akatsak egiten ditugu, normala den bezala, eta galdu ditugun partidak xehetasunengatik galdu ditugu, larunbatekoa, esaterako. Talde berria izateak zailak eta nerbioak pizten ditu, eta puntuak joaten dira. Gaur egun galtzen ditugun partidak ez naute larritzen, badakidalako aurrera begira garaipenak etorriko direla. Taldeak etorkizuna du, eta bereziki horrengatik nago pozik. Jokalariak oso gazteak dira, eta helburua ez da aurtun lehen postuen artean egotea edo final laukorako sailkatzea, inondik inora" nabarmendu du Iosu Marañoñek.

Sendotzea, iraupena izateko

Helburua taldea sendotzea da, maila berriari tamaina hartzea eta emakumezkoen senior taldeak jarraipena izatea, "taldea sendotzea, iraupena izan dezan" Etxaizen hitzetan. Beti ere 18 urtetik gorako emakumeek saskibaloian jarraitzeko modua izan dezaten. Taldea harilkatzeko bide horretan, "lehenengo gauza jokalariek elkarren artean ongi ezagutzea da, nolakoak garen eta nola jo-

katzen dugun jakitea" gaineratu du. Eta horretan ari dira buru-belarri. Senior kategorian dagoen mailak ez du sorpresaz hartu. "Espero nuena ari da izaten. Iosuk dioenaren haritik, gurea talde oso berria da, goiz da, eta oraindik elkar ezagutzen ari gara. Ziur nago denboraldiaren bukaerarako hobe egongo garela".

Orain arte senior mailan lehiatu ez direnez, partida bakoitza berria da CBASK Xabi Gorritz Tattoos taldearendako. "Ez dugu gainontzeko taldeen inolako erreferentziarik, eta alde horretatik orain arteko partidek sorpresa ukitua dute guretako, euren kontra jokatzeko dugun lehenengo aldia baita, baina sentazioak onak dira, eta gustura gabilta" deritzo Etxaizek. "Guk orain gure taldean zentratu beharra dugu eta gero iritsiko da iritsi behar dena" argi du Zubiriak. Ez ditu taldeak ongi ezagutzen, baina Etxaizek Burlada, Navarro Villoslada eta Larraona kokatzen ditu faboritoen artean. "Gu ere izan gaitezke; emaitzak ikusita diot hori" erantzun du entrenatzaileak.

Astelehenetan, asteartetan eta ostegunetan entrenatzen dute, Zelandin. Entrenamenduan denetatik lantzen dute: fisikoa, 5x5 partidak... "baina bereziki entrenamendu tekniko asko egiten dugu talde oso gaztea garelako. Ezagutza behar dugu, eta horretan gaude" zehaztu du Mendiolak. Entrenatze eta partidak gidatzeko lanetan Iosu Mendiola Marañonen laguntza du. "CBASK talde interautonomikoan jokatzeko nuen, eta Iosuk nesken senior taldea entrenatzen laguntzea eskatu zidanean, animatu eta ez nuen zalantzarik izan" azaldu du. Orain arteko taldeak parekoak izan direla uste dute.

Hurrena, San Cernin

Emakumezkoen Lehen Senior Mailako bigarren multzoko liderra Navarro Villoslada B taldea da (6 puntu) eta CBASK Xabi Gorritz Tattoos taldea bosgarren da (4 puntu). Larunbatean Iruñean jokatu dute, 3 punturekin sailkapenean zazpigarren den San Cernin taldearen kontra, 18:00etan. "Taldea ezagutzen ez dugunez, beste sorpresa bat izango da guretako" diote, irribarrez.

Zaleen babesa

Momentuz Zelandin jokatu izan dituzten bi partidak ikustera



CBASK Xabi Gorritz Tattoos taldeko jokalariek eta entrenatzaileak astearteko entrenamenduan. Taldekide batzuk ezin izan ziren egon.



Iosu Maraño entrenatzailea eta Ane Zubiria eta Ainhoa Etxaiz jokalariek, aldagelan.



CBASK Xabi Gorritz Tattoos taldeko bi jokalariek, entrenatzen hasi baino aurretiako saskiratzeetan.

CBASK Xabi Gorritz Tattoos

2022/2023 Emakumezkoen Lehen Senior Autonomikoa

• Jokalariek:

4-Ainhoa Etxaiz San Roman
5-Itsaso Ijurko Risko
6-Edurne Ormazabal Aznarez
7-Irune Garisoain Gonzalez
8-Naroa Bereziartu Ayestaran
9-Leire Sayas Jorge
10-Irantzu Lasa Urteaga
11-Maren Pozueta Diaz
12-Miren Murua Ugalde
13-Ane Zubiria Ciordia
14-Leire Lazkoz Romero
17-Ainhoa Calleiras Benito
18-Amaia Lizarraga Lopez de Goikoetxea
22-Ainhoa Rivero Arroyo

• Entrenatzaileak:

Iosu Mendiola Maraño
Igor Martinez Lumbleras

jende dezente hurbildu da. "Ligako bi partida arrunta izateko Zelandi nahiko beteta egon da, egia esan" diote jokalariek, zaleen animoak eskertuz. "Iruñeko partida, aldiz, astearte batean jokatu genuen eta nabaritu zen, ez zegoelako horrenbeste jende" zehaztu dute.

CBASK-en atzetik datozen neskendako erreferente bilakatu dira seniorrak. "Harrobia badago. Beraz, oso garrantzitsua zen emakumezkoen senior taldea izatea" nabarmendu du Iosu Mendiolak. Horrenbeste urtez taldea egon ez izanaren arrazoiez galdetuta, ez zuen oso argi. "Agian ikasketengatik, asko kanpora doazelako, edo 18 urterekin gazte askok kirol taldeetan egoteari uzten diotelako... izan daiteke, baina gerta daiteke, agian, klubetik ere emakumezkoen senior taldea sortzeko bultzada pixka bat falta izan dela, taldea ateratzeko ez zirela bitarteko guz-

tiak jarri. Baina behingoz lortu dugu, eta orain taldea eustea, hori da erronka".

Bidea zabaldua, taldea luze-rako mantentzea da klubaren helburua. "Gizonezkoen bi senior talde daude; emakumezkoen taldea sendotzea eta posible bada, gehitzea, da orain egitekoa" egin du apustu. Seniorretan hiru talde egotea "kluba gero eta hobeto dagoenaren seinalea" da. "Lan asko egin da".

Hizketaldia bukatuta, entrenamendurako azalpenak ematen hasi da Mendiola, Martinezen laguntzarekin. "Arbela asko erabiltzen du" diote jokalariek, irribarrez. Giro ona sentitzen da Zelandin, emakumezkoen senior taldea sendotzeko ezinbestekoa.

Gizonezkoen asteburua

Gizonezkoen senior mailan ongi hasi da denboraldia. Bigarren maila Interautonomikoan asteburuan Narum CBASK-ek Humiclimaren kontra jokatu beharreko partida atzeratu egin zen. ENERparking Basket Navarra da liderra (6 puntu) eta Narum CBASK seigarren da (4 puntu). Hain zuzen ere Narum CBASK-ek liderra hartuko du larunbatean, 16:00etan, Zelandin. Gizonezkoen Bigarren Maila Autonomikoan CBASK Ifuelek 61 eta 45 irabazi zion Berriozarri eta sailkapenean laugarren da (5 puntu). Asteburuan Lagunaken kontra jokatu beharreko partida atzeratu egin da.

"BERRIAK GARA, ETA ORAIN GURE TALDEAN ZENTRATU BEHARRA DUGU"

ANE ZUBIRIA

"TALDEAK ETORKIZUNA DU, ETA BEREZIKI HORREGATIK NAGO POZIK"

IOSU MARAÑO

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN

Larunbatean Nafarroako Kluben Arteko Buruz Buruko Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren Labriten. Afizionatuen bigarren mailako txapela Sakanara etorri da, Adrian Azpiroz Asurmendik (Irurtzun) lortu baitzuen "zapore bikaina" duen txapela janztea, Xhoelazkoz Martinezi (Oberena) gailenduta. Txipuak bezain altua den atzelariak -1,93 m neurtzen du- bere palmareseko garaipenik garrantzitsuenak izango da, ezta?

Nafarroako bigarren mailako buruz buruko txapelak. Zure palmareseko garaipenik garrantzitsuenak izango da, ezta?

2021ean, jubenila nintzela -egun 19 urte ditu- Nafarroako Jubenilen Lau eta Erdiko Txapelketan laugarren izan nintzen, eta 2019an Altsasuko Otadiko Kristo Deuna txapelketa irabazi genuen De la Fuente eta biok, jubeniletan. Orain arte horiek ziren nire lortu garrantzitsuenetakoa, baina Nafarroako afizionatuen bigarren mailako txapelak beste biak zokoratu ditu.

Atzelaria zara, baina Xhoelazkoz, zurekin finala jokatu zuen pilotaria ere. Bitxia da atzelari batek Buruz Buruko txapela irabaztea.

Atzelaria naiz, baina banaka jokatzeko ere oso gustuko dut. Nire burua ongi ikusi nuen eta txapelketan aritzea erabaki nuen. Urte batzuk baziren banakakoan jokatzeko ez nuela eta horregatik Miguel Berazarekin (Irurtzun pilota klubeko presidentea) hitz egin ondoren, bigarren mailakoan aritzea erabaki genuen. Atzelariak banakako finalerara iristea ez da egunero ikusten, baina gure kasuan horrela izan zen eta alde horretatik ere kontentua nago.

Finalera heltzea espero al zenuen? Horren urruti iristea ez nuen espero. Txapelketa jokatu nahi nuen banaka aritzea gustuko dudalako, besterik gabe, eta partidatara disfrutatzea atera nintzen, inolako presiorik sentitu gabe. Finalerako sailkatzea handia izan zen, eta irabaztea ere gehiago, ez nuelako espero.

Finala non eta Labriten. Berezia izango zen.

Bai, oso berezia. Hasieran Xhoelazkoz aurreratu zen, bizpahiru tantoren alde aterata, baina gero nik berdindu eta aurretik jarri nintzen, ia partida osoan. Biak atzelariak garenez, botez jokatu genuen. Hori normalean ez da

"Atzelaria izanda buruz burukoa irabazteagatik ere nago pozik"

ADRIAN AZPIROZ ASURMENDI IRURTZUN PILOTA KLABEKO PILOTARIA

PILOTA Irurtzundarrak Nafarroako Klub Buruz Buruko bigarren mailako txapela jantzi du eta Arribillagarekin Binakako txapela lortzea da bere hurrengo erronka



Adrian Azpiroz eta Xhoelazkoz, txapela eta dominarekin. UTZITAKOA

ikusten, aurrelariak gehienbat airez jokatzen dutelako. Sakeak garrantzi handia zuen, biak botez errestoa egitera ohituta gaudelako, eta gauzak ongi ateratzeko zitzazkidan. Lauzprobost tanto egin nituen sakez, eta hori abantaila handia da. Horretaz gain, uste dut Xhoelazkoz baino pixka bat gehiago arriskatu nuela. Partida gogorra izan zen, oso pilotatua, eta irabazteagatik oso pozik nago.

Txapela lortu izana behar bezala ospatu al zenuen?

Bai, lagunekin afaria egin genuen Iruñean eta familiarekin ere ospatu nuen.

Irurtzun pilota klubean aritu izan al zara betidanik?

Irurtzundarra naiz, baina Arren bizi naiz. Txikia nintzela Irurtzun klubean hasi nintzen, baina gero Paz Zigandan bi urte egon nintzen eta handik Esteribarko klubera joan nintzen. Bizpahiru urteren ondoren Irurtzunera bueltatu nintzen. Talde ederra dugu Irurtzunen, entrenatzeko giro oso ona dugu eta gustura gabilta.

Astero zenbat entrenamendu egiten dituzu?

Erdi Gradu Mekanizazio ikasketak egiten ari naiz, goizez, eta

"HASTEAREN DAGOEN BINAKAKOAN ARIBILLAGA DUT BIKOTE. ITXAROPEN HANDIA DUGU"

astelehenetik ostegunera arratsaldean entrenatzen dut. Ez dut aspertzeko tarterik, baina ez dut inolako kexurik, gustura aritzen bainaiz.

Berehala Klub Arteko Binakako Txapelketa hasiko da eta pentsatzen du hori izango dela zure hurrengo helburua.

Bai, Binakakoan lehen mailan lehiatuko naiz eta aurki hasiko gara. Aurten Fermin Arribillagarekin osatuko dut bikotea. Noiz-bait jokatu izan dugu, baina esan daiteke bikote berria garestia.

Zein da zure ohiko bikotea?

Orain arte Xuban Armendarizekin jokatu izan dut gehien, eta azkenaldian Aingeru De la Fuentekin asko ibiltzen naiz. Dena den, normalean bikotez asko aldatzen dugu eta nik ere nahia izaten dut, bikotearen arabera ere zure jokoa moldatu behar duzulako eta beti zerbait ikasten delako. Gainera, bestelako taldekideekin aritzera ere ongi dago. Egia esan, berdin zait edonorekin jokatu, ni beti pozik.

Binakako Txapelketarako ilusioz zaude, gogotsu?

Oso. Ongi sentitzen naiz, ez dut inolako arazorik, eskuak ere ongi ditut eta sasoi momentu onean nago, gustura. Arribillagarekin aritzeagatik ere oso pozik nago. Bikote gogorra osatzen dugu eta itxaropen handia dugu. D multzoan lehiatuko gara. Txapelketa azaroaren 6an hasiko da eta luzea da, partida asko direlako. Dena den, guretzat hobe, guk partidak jokatu nahi izaten dugulako. Binakakoa erresistentzia proba da, zure mailarik onena eman behar duzulako.

Zeintzuk dira arerio gogorrenak?

Asko.. (kar, kar). Irurtzun klubeko beste bikoteak ere gogorrak dira: De la Fuente-Apezetxea, Lazkoz-Nazabal... Azkenean ez diogu inori beldurrik eta ilusioz jokatuko dugu. Ea zortea dugun.

Miguel Berazak esana du gaur egun atzelarien krisia dagoela, atzelari onak ateratzea asko kostatzen dela.

Profesionalerara pasatzeko aukera gertu ikusten duzu?

Txikitatik pentsatzen duzun zerbait da, ametsa. Profesionalerara iristea sekulakoa litzateke. Badakigu zaila dela, baina sinistu beharra dugu. Bitartean, beste ilusio batzuk bete nahiko nituzte. Espainiako Txapelketan jokatzeak ilusioa da, Euskal Herriko Klub Artekoan aritzeak... txapelketa handiak dira, eta bizi nahi ditut.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI AS-
TEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.
Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 28

ALTSASU Tailerra.
Gau beltzaren harira sukaldaritza beldurgarria tailerra. 8 eta 12 urte bitarteko haurrendako.
15:30etik 16:45era, ludotekan (Intxostiapunta eraikinean).

ALTSASU Gazte agenda.
Sexgune zerbitzua.
Intxostiapunta gazte gunean.
17:30 12 eta 16 urte bitarteko gazteak.
19:00 17 eta 30 urte bitarteko gazteak.

OLAZTI Urri Trans programa:
Film dokumentalaren aurkezpena.
LGTBifobia kirolean errealitate bat da Sakanako Mankomunitateko Jarduera Fisiko eta Kirol eta Berdintasun Zerbitzuek Kattalingune LGTBI+ Zerbitzuarekin batera egindako film dokumentalaren aurkezpena.
18:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Aurkezpena eta argazki erakusketa.
Elkarri Laguntza elkartearen eta egitasmo baten aurkezpena eta *Logela bat ez da bizileku bat* argazki erakusketa. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak eta Itxipuru elkarteak antolatuta.
19:00etan, Pikuxarren.

LAKUNTZA Euskaraldia.
Euskaraldian izena emateko mahaia.
19:00etatik 20:30era, plazan.

IRURTZUN Kontzertua.
Esloveniako Stanislau girl's chori Maribor abesbatzaren kontzertua, XXVII. Nafarroako Abesbatzen Zikloaren barruan.
19:30ean, elizan.

ALTSASU Elkarretaratzea.
Azken ostirala preso eta iheslariak etxera elkarretaratzea, Sarek eta Etxerategen deituta.
19:30ean, udaletxearen aurrean.

LAKUNTZA Kontzertua.
Iruñeko Orfeoiko Gazte Abesbatzaren kontzertua.
20:00etan, kultur etxean.

LARUNBATA 29

LAKUNTZA Mendi irteera.
Zabalarte eguna: Irañetako iturburua eta Lakuntzaren arteko ibilaldia egingen du Zabalarte taldeak. Ondoren, Lakuntzako Pertzan bazkaria egingen dute.
08:00etan, plazan.

LAKUNTZA Ospakizuna.
Gure Nahia jubilatuen elkartearen bazkidearen eguna.
13:00 Barañaingo abesbatzaren kontzertua.
Elizan.
14:30 Bazkaria, elkartearen.
Ondoren, azken hiru urtetan urrezko eta diamantezko ezteiak egin dituztenei aipamena eta udaberriko mahai joko txapelketako sari banaketa. Arratsaldean, Dantzaldia Rikardorekin.

IRURTZUN Tailerra.
Gau beltza prestatzeko maskara eta kandelen tailerra Tramankulurekin. Aurretik Pikuxarren izena eman.
17:00etan, 18:00etan eta 19:00etan, Barazkiguneren.

ALTSASU Gazte agenda.
Gau beltza.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

IRURTZUN Kontzertua.
Folk Ametsetan zikloa: Los Malagatos taldearen emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

OLAZTI Antzezlanak.
Virginia Imazen *Molestias Clownicas* helduendako clown antzerki ikuskizunaren emanaldia. Ziordiko, Olaztiko eta Altsasuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak antolatuta.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Ikuskizuna.
Yllana eta Thötem konpainien *Trash!* perkusio eta antzerki ikuskizuna. Sarrera gutxi gelditzen dira.
19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Kontzertua.
Los del Rayo taldearen *¡Cuidate!* diskoaren aurkezpen kontzertua eta The Guilty Brigade taldearen *Queroseno* diskoaren eta X. urteurren biraren hasiera kontzertua.
22:00etan, gaztetxean.

IGANDEA 30

UHARTE ARAKIL Oroimen ekitaldia.
86. urteurrena. Uharte Arakilen Frankismoak eraildako eta errepresaliatutako seme-alaben gogoan ekitaldia.
12:30ean, seme-alaben plazan.

IRURTZUN Txapelketa.
Taberna arteko mus txapelketa.
16:00etatik aurrera, Plazaola, Pikuxar euskal txokoa, La Moncloa eta Hotel Plazaola tabernetan.

ETXARRI ARANATZ Urri Trans: antzerkia.
Meri, Mari eta Lari antzezlanak.
17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Elkarretaratzea.
Euskal preso eta iheslariak etxera.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 31

ALTSASU Elkarretaratzea.
Pentsio duinen alde.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

BAKAIKU Gau beltza.
16:30etik aurrera, herritik.

IRURTZUN Gau beltza.
Ibilaldi beltza misterioz eta mitologiaren beteriko ibilbidea, Orritz-Iskidiko pertsonaiekin eta Tramankulu konpainiarekin eta Ion Barbarin, Yurena Pérez, Izaskun Mujika eta Lorena Arangoa antzezleekin.
17:30etik aurrera, Ardanzetako Xendan.

ALTSASU Gau beltza.
Altsasu piztu, iluntasuna bizi!
17:30 Xanduli manduli, kale erronda, Iñigo Aritza ikastolak antolatuta. lortia zabalgunetik.

19:00 Merendua, Kukuerreka elkartearen. Ondoren, kantupoteo.

ZIORDIA Festa.
Halloweeneko beldur gau festa. 80 eta 90 hamarkadetako musika Miami Djren eskutik eta mozorro hoberenari saria.
23:00etan, Etxaleku tabernan.

ASTEARTEA 1

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.
Suediako Härlanda Chamber Choir abesbatzaren kontzertua. XXVII. Nafarroako Nazioarteko ziklo korala.
19:00etan, elizan.

ASTEAZKENA 2

ALTSASU Tailerra.
Labenprende Educaixa La Caixa fundazioaren ekintzaile laborategi eta tailer ibiltaria.
09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, lortia zabalgunean.

ALTSASU Tailerra.
Kafe konpondu.
17:30etik 19:30era, Gure Etxea erakinean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Los renglones torcidos de Dios gaurkotasunezko filma
Ostirala 28 19:00
Igandea 30 19:30

Filmoteka Nafarroan: Neskatoak film dokumentalaren emanaldia
Jon Abril zuzendariarekin
Astelehena 31 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Fuego zineforum filma
Igandea 30 19:00

OSTEGUNA 3

ALTSASU Tailerra.
Labenprende Educaixa La Caixa fundazioaren ekintzaile laborategi eta tailer ibiltaria.
09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, lortia zabalgunean.

ALTSASU Liburu aurkezpena.
Bestaldean. Euskal iheslari politikoen bizipenak liburuaren aurkezpena Jaione Dorai Oskotz eta Ernesto Prat Urtzainki Littel egileekin. Ondoren, pintxo poteoa.
19:00etan, Kukuerreka elkartearen.

Bazkide

zozketa

URRIKO SARIAK

1. SARIA

Ruben Rodriguez Romero (Lakuntza)

2. eta 3. SARIAK

Jon Igoa Etxarri (Etxarri Aranatz)
Nerea Garziandia Lizarraga (Altsasu)
Olivi Galparsoro Jauregi (Olazti)

lacturale gaztezero guaixe fundazioa

Er⁺iti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Etxe zaharren berriztatze eta birgaitzea

Erakusketa Irurtzunen

ESKELA



Axun Larraza Huarte

Gure maitasunik goxoen zuretzat zauden tokian zaudela

Lizarragako familia

ESKELA



Axun Larraza Huarte

Isilik, askotan, baina gure artean; isilik alde egin diguzu... Pitutirengana.

Ez zaitugu ahaztuko

Iratxo elkarteak
Irurtzun

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 - www.izarratanatorio.com

JAIOTZAK

- Mercedes Viviana Maldonado Males, urriaren 12an Irurtzun
- Irati Ortiz Leoz, urriaren 16an Altsasun
- Malen Lizarraga Gonzalez, urriaren 18an Dorraon
- Garai Martinez Diez de Arizaleta, urriaren 19an Iturmendin
- Leire Ganuza Perez, urriaren 20an Uharte Arakilen

EZKONTZAK

- Joseba Mirena Finó Balerdi eta Olatz Berastegi Loiola, urriaren 22an Lizarragan
- Ana Remacha Sienes eta Victor Manuel Regalado Garrido, urriaren 22an Irurtzun

HERIOTZAK

- Juan Andres Percas Goikoetxea, urriaren 14an Ziordian
- Isidoro Lopez de Zubiria Goikoetxea, urriaren 24an Lakuntzan
- Maria Asunción Larraza Huarte, urriaren 25ean Irurtzun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Jarri zure iragarki laburra!

948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ERRENTAN EMAN
Lizarragako Azi Iturri Txokoa 2022ko San Klemente festetan alokatu nahi da: azaroaren 18, 19 eta 20an. Gutxienez 1.000 euro izanen da. Alokatu nahi duen edonor azaroak 6, igandea, eguerdiko 12:00etan elkartean ager dadila. Bat baino gehiago baldin badago, enkantea egingen da.

HIGIEZINAK

ALOKAIRU BILA
Bikote bat etxe baten bila: Sakanan (Arbizu inguruan bada hobe) alokatzeko pisu edo etxe baten bila gabiltza, gehienez 400 euro ordaindu ditzakegu orain, denborarekin erosteko aukera nahiko gurea. Deitu 699 173 735 telefonora, eskerrik asko.

GALDUTAKOAK/OPATUTAKOAK

OPATUTAKOAK
Betaurreko graduatuak opatu dira Etxarri Aranatz: Beheko basoko bidean, Arrigorrieta kalean. BELEIXE IRRATIAN daude.

OHARRAK
Irurtzongo Udalak euskaraz ikasteko dirulaguntzak emanen ditu: Joan den urteko irailetik aurrera agorritara egingo dako ikastaroak hain zuzen. Baldintzak: 16 urte beteak izatea eta Irurtzun errolatuta egotea. Udalak ikastaro mota guztiak lagunduko ditu diruz, baita udako euskarazko unibertsitate ikastaroak ere. Deialdian interesatuen eskakizunak udalaren erregistroan aurkeztu beharko dituzte.

Arakildik irteera kulturala Albaola Pasaia: Azaroaren 12an izango da, goizeko 8:30ean Arakildik. Goizean goiz Arakildik herrietatik abiatu eta Altsasura joango gara bertako hariztiak ezagutzeko. Miruako kideek azalpenak emango dizkizue.

lastailaren 26tik azaroaren 18ra.

Etxarri Aranatzeko Kattuka haur eskolako erabiltzaileendako dirulaguntza deialdia: Joan den ikasturtean beraien 0 eta 2 urte arteko seme-alabak Arbizuko Kattuka haur eskolan izan zuten etxarrirek dirulaguntza eskatzeko aukera dute. Hala erabaki du Etxarri Aranatzko Udalak, deialdia aurreko ikasturtean haur eskolan seme-alabak zituzten gurasoendako da. Eskabideak aurkezteko epea azaroaren 20ra arte.

Etxarri Aranatzko Udalak herriko entitateei zuzendutako dirulaguntzen deialdia egin du: kultur, kirol eta jendarte entitatei dirulaguntzak emateko deialdia onartu du. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak 2022ko lastailaren 1etik 2023ko irailaren 30era arteko epean egin beharko dira. Eskabideak aurkezteko epea 2022ko abenduaren 31ko 14:00etan amaizten da. Informazio gehiago www.etxarriaranatz.eus web orrian daude.

Iturmendiko Udalak beheko basoko bidean dagoen langa giltzaz ibi zuten hilaren 18an: basoan barna ibiltzen diren ibilgailuen mugimendua mugatu nahi du. Hala ere, basora autoz joan nahi dutenek udalaren giltzaren kopia bat eskatzeko aukera dute. Harengatik bi euro ordaindu beharko dute.

Arakildik irteera kulturala Albaola Pasaia: Azaroaren 12an izango da, goizeko 8:30ean Arakildik. Goizean goiz Arakildik herrietatik abiatu eta Altsasura joango gara bertako hariztiak ezagutzeko. Miruako kideek azalpenak emango dizkizue.

gute bertan egindako lanak ezagutzeko eta ondorengo, Pasaian kokatutako Albaola museoa bisitatuko dugu. Ontzola jabetxean bazkaldu ostean, ordu pare bateko denbora libreagongo da Pasaian murgiltzeko eta arratsaldeko sei terdiak aldera Arakildera abiatuko gara. Izena emateko epea urriaren 31an bukatuko da, beraz, izena eman azkar 948 500 101 edo 634 584 226 telefonotara deituz.

Emakumeen arteko sareak ehundu: A25 ekimenaren barruan Sakanako emakumeen topaketa egingo da azaroaren 27an; sortu zure ohial zatia (patchwork, kaporratz, gantxilloa...) eta ekarri topaketara, bertan oihaltu zati guztiak ehundu ditugu. Izena eman azaroaren 22a baino lehen berdintasuna@sakana-mank.eus helbidera idatziz.

Irurtzun Ibilaldi Beltzarako sarrerak: urriaren 31n 17:30tik aurrera Ardanzetako xendari egingo den misterioz eta mitologiak betetako ibilbiderako sarrerak Pikuxarren salgai daude agortu arte. Helduentzat 5 eurotan eta sei urtetik beherakoentzat eta MECNA kideentzat 3 eurotan.

Patata operazioa: Azaroaren 6an, igandearrekin, Irurrieko Alegria peñak papata operazioa egingo duela jakinarazi du. Ur-dian eta Satrustegi artean jakiak biltzen egonen dira igande goizean eta eguerdian. Animatu.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarki Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es



'Neskatoak' film dokumentalaren irudi bat. UTZITAKOA

Eneida C. M. / Erkuden R. B. ALTSASU

Jon Abril Olaetxeak *Isildutako eskuak* liburua aurkeztu berri du. Bertan hamaika lanbidetan aritutako hamalau emakumeren istorioak bildu ditu kazetariak. Liburuaren aurretik frankismoaren garaian Ipar Euskal Herrira lan egitera joandako emakumeen bizipenak jaso zituen *Neskatoak* dokumentalean. Urriaren 31n, astelehenean, 19:00etan, filmaren emanaldia izanen da Iortia kultur gunean, Filmoteka Nafarroan programaren barruan. Zuzendaria bertan izanen da. "Programaren helburuen artean dago Nafarroan egindako filma aurkeztea, baita zuzendariak publikoarekin harreman zuzena izatea ere". Dokumentalarekin "horrela" ibili dela esan du Abri-lek. "Mexikoko jaialdi batera izan ezik, gainerakoetan beti publikoarekin batera bertan izan naiz. Aukera ematen du hasieran aurkezpen txiki bat egiteko eta ondotik solasaldia edukitzeko". Elkarrizketa "politak" sortzen direla esan du.

Emanaldietan sortutako solasaldi horietan, hain zuzen, sortu zen liburua egiteko ideia. "Lotura estu-estua dute bi egitasmoek". Dokumentala 2016an mustu zuen eta Euskal Herriko 80 bat herri-tan egon da hura aurkezten. "Emanaldietan gertatu izan zait adineko emakumeek hitza hartzen zutela eta euren bizipenak kontatzen zituztela. Batzuetan neskato lanean ibilitakoak ziren, beste askotan bestelako lanbide-

Gertuko istorioak

Filmoteka Nafarroan udazkeneko programazioaren barruan, Jon Abril Olaetxearen 'Neskatoak' film dokumentalaren emanaldia izanen da urriaren 31n, astelehena, Iortia kultur gunean. Zuzendaria filma aurkezten egonen da

tan eta ogibidetan aritutakoak". Neskatoak "kopurutan" emakumeen lanbiderik zabalduena izan zela ikusi zuen, baina beste lanbide askotan ibili zirela konturatu zen ere, "eta hortik etorri da liburua".

Neskatoak

Etxean eta herrian entzundako neskatoen istorioetatik sortu zitzaion dokumentala egiteko interesa. "Bereziki etxean nire amatxigatik. Gurekin bizi zen, eta gaztetik hala ibili zen. Sem-alaba, nire aita eta izeba, anai-arrebekin utzi behar izan

IPARRALDEN NESKAME IZANDAKOEN BIZIPENAK JASOTZEN DITU FILMAK

zituen eta Iparraldera lan egitera joan behar izan zuen 1950ko hamarkadaren hasieran". 25 bat urte eman zituen etxe horretan lanean, "etxe berean beti, sukaldari, hasieran interna moduan eta gero tartekatatu zituen sasoi-ko lanekin. Beti kontatzen zizkigun etxe horretako kontuak". Gerora etxeko jabeekin harremana mantendu dutela eta alaba dokumentalaren aurkezpenean egon zela esan du Abri-lek. "Niretzat nahiko gai hurbila zen, baina ez nuen gehiegi sakondu edo aztertu. Momenturen batean heldu nion gaiari eta ikertu nahi izan nuen amatxiren istorioa hura zenbateraino izaten zen ohikoa, zein bizipen izan zituzten beste emakume batzuek". Zuzendariaren senide gehiago ere neskato izan ziren.

Normalean emakume oso gazteak joaten ziren Ipar Euskal

Herrira eta Frantziara lanera. Bere amonaren kasuan alargun gelditu zenean joan zen, baina 1950ko hamarkadan joandako emakumeak gaur egun 85 eta 90 urte bitarte dituzte, eta 70 urte bueltan daudela ere azaldu du Abri-lek. 1970ko hamarkadara arte emakumeak lanera joan zirela aipatu du, "lehenengoa joan zenetik azkena joan arte 25 bat urteko aldea dago".

Euskal Herriko leku desberdinetatik joan ziren neskatoak, baina bereziki Baztan Bidasoatik, Zuberotik eta Behe Nafarroatik eta Lapurditik ere joan zirela

"AMATXIREN ISTORIAO ZENBATERAINO ZEN OHIKOA IKERTU NAHI IZAN NUEN"

azaldu du. "Lan eskari handiena Lapurdiko kostaldean izan zen, turismoak 1950ko hamarkadatik izan zuen ez-tandagatik aberats asko bertara bizitzera joan ziren: Hendaia, Donibane Lohitzune, Miarritze, Baiona, Angelu...". Gertuko tokietatik joan ziren beraz langileak.

Lan baldintzak, gehien bat hasierako urtetan, gogorrak ziren. "Gehienek ez zuten kotizatu eta ondorioz ez zuten gerora pentsio bat kobratzeko aukerarik izan. Amatzik kotizatu gabe 25 urtez lan egin zuen, eta bera bezala badira asko". 1960ko hamarkadan egoera aldatzen joan zen, "pixkanaka", eta kotizatzen hasi ziren. "1961 urtera arte Frankismoak atzerrira lan egitera joatea debekatu zuen, beraz, ilegalki joan ziren emakume horiek, pasaporterik gabe, erresidentzia baimenik gabe eta lan kontraturik izateko eskubiderik gabe, beltzean kobratuz...". Bidaia ere ez ziren errazak izaten, *Neskatoak* dokumentalean azaltzen den bezala. "Egoera nahiko latzak bizi izan zituzten".

Bizipenak

Neskame lan eskaintza "ahoz aho" iristen zen gehienetan. "Etxe batean beste bat zutenean edo ondoko etxean behar zutela enteratzen zirenean etxekoei edo lehengusinei esaten zieten". Bitartekariaren figura ere existitzen zela azaldu du Abri-lek: "Horiek arduratzen ziren neskak bilatzeaz. Nahiko ezagunak ziren Arantzan, Hendaian, Saran... Baserriz baserri joaten ziren interna ibiltzeko neskak bilatzen". Komisioa irabazten zuten, batzuetan etxekoek emandakoa, bestetan langileari lehenengo soldatatik kenduta.

Irabazitakoa "gehienetan" etxean ematen zuten neskatoek. "Diru horrekin baserri asko erosi ahal izan zituzten, zaharkituak konpondu edo anai-arreba gazteek ikasketak egin ahal izan zituzten. Zer esanik ez jantziak, platerak, ezkondu ahal izateko ondasunak eta abar erosten zituzten ere". Bitxikeri bezala aitari hil zitzaion behia erosteko lehenengo soldata baliatu zuenaren istorioa kontatu du Abri-lek.

Lanbidean ere zailtasunak izan ziren. "Indarkeria sexista kasuak izan ziren ere. Dokumentalean ez da hain explizituki aterata ez zutelako esaten, baina gero jakin dut abusuak egon zirela". Bestelako gehiegikeriak ere egon zirela azaldu du zuzendariak.

Folklorearen eta iluntasunaren artean

Egunotan Irurtzunen 'Folk Ametsetan' zikloaren emanaldiak eta Gau Beltza ospatuko dituzte. Folklore musika oinarri duen programa urriaren 29an, larunbata, eta azaroaren 6an, igandea, izanen da, eta 'Ibilaldi beltza' urriaren 31n

IRURTZUN

Beste urte batez Irurtzunen Folk Ametsetan programa antolatu dute. Toki desberdinetako folklore musika entzuteko aukera izanen da, eta aurten Andaluziako eta Euskal Herriko ohiturazko doinuak berritzen dituen bi talde izanen dira Irurtzuno kultur etxean. Urriaren 29an, larunbata, 19:00etan, Los Malagatos Andaluziako taldea izanen da, eta azaroaren 6an, igandea, 19:00etan, Arineketan euskal musika zaharra eguneratzen duen taldea izanen da Irurtzunen. Tartean Gau beltza ospatuko dute Irurtzunen ere: urriaren 29an, larunbatean, prestaketekin hasiko dira, maskara eta kandelen tailerrean, eta urriaren 31an, astelehenean, 17:30etik aurrera, Ibilaldi beltza egingen dute.

Los Malagatos Andaluziako folk musika egiten duen taldea da Folk Ametsetan egitarauaren lehenengo proposamena. Taldeak Andaluziako musika tradizionala berreskuratu eta eguneratu du, emozioz eta balio historikoz beteriko melodiak, letrak eta dantzak sortuz. Hain zuzen, Malagako estiloa, letrak eta dantzak elkartzen dituzte. Irurtzunen haien lehenengo lana aurkeztuko dute.



Urriaren 31n Ibilaldi beltza egingen dute Irurtzunen. ARTXIBOA

Azaroaren 6an, igandea (19:00etan), folk musika oinarri duen programaren bigarren proposamena izanen da: Arineketan taldearen kontzertua. Iñar Sastre eta Jagoba Astiazaranen proiektu bat da eta euskal folkloreko doinu zaharrak hartu eta eguneratu dituzte, gaur egungo dantza taldeei material berria eskura utziz. Txistua eta pianoaren arteko elkar hartzea dute oinarri. Folk Ametsetan ziklorako bi emanaldien sarrerak Irurtzuno Udaleko webgunean eros daitezke, bost eurotan emanaldi bakoitza.

Gau beltza

Irurtzunen aspaldi ospatzen dute urriaren 31n Gau beltza. Ibilaldi beltza misterioz eta mitologiaren beteriko ibilaldia antzezlan ibiltaria egingen dute astelehenean, 17:30etik aurrera, Ardanzetako Xendan. Orritz-Iskidiko izaki mitologikoak eta Tramankulu konpainiak eta Ion Barbarin, Yurena Pérez, Izaskun Mujika eta Lorena Arangoa antzezle arakildar eta irurtzundarrek parte hartuko dute. Sarrerak Pikuxarren eros daitezke.

Molestias Clownicas antzezlanak Pauxa pailazoaren istorioa kontatzen du. Osasun etxearen ilaran itxoi ten dagoen bitartean, bertan dauden pertsonen artean okerren daudenen arteko lehiaketa egiten du. Umorearekin eta samurtasunez emakumezkoen eta osasunaren arteko harremanaren berri ematen du; publikoa haren molestia kronikoaren lekuko egiten, estresa, dietak, ginekologoarenganako bisita, automedikazioa eta abar nola ikusten dituen azaldu du.

Emakumezkoen eta osasunaren arteko harremana

Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak antolatuta klown ikuskizuna izanen da bihar, Olaztikok kultur etxean

OLATZAGUTIA

Ziordia, Olazti eta Altsasuko zonaldeko gizarte zerbitzuak *Molestias Clownicas* klown antzerki ikuskizuna antolatu du bihar, urriak 29, larunbata, 19:00etan, Olaztikok kultur

etxean. Sarrerak Olaztikok Udaleko webgunean eros daitezke aldezturik 4 eurotan eta egunean bertan, leihatilan, 6 eurotan. Virginia Imaz pailazoa da antzezlanaren egilea eta protagonista.



BAZTERRETIK

ALTSASUKO
LIBURUTEGIA

Altsasuko Liburutegi Publikotik hiru irakurketa proposamen

HELDUENDAKO: Izurdeen aurreko bizitza Kirmen Uribe (Susa, 2021)

Kirmen Uribek New Yorkeko Liburutegi Publiko prestigio-tsua sormen Cullman Beka lortu zuen, eta horren emaitza nobela hau da. Oso interesgarria gai zein kontatzeko moduarengatik. Hiru narrazio hari ditu, bakoitza besteei, "neuronak bezala", konektatzen direnak. Bere haurtzaroa 80. hamarkadan emakumezko iraultzaile familia batean; bere emaztea eta seme-alabeekin bizitza New Yorken, lan honetan dabilen bitartean, 2020eko pandemia barru; eta Rosika Schwimmer sufragista eta bakezalearen bizitza. Liburuaren gai nagusia azken hau: nola hazi zen zaldi eta kontzertu artean, nola lotu zen emakumeen askapen mugimendura, nola antolatu zuen Gerra Handiari aurre egin nahi zion bake ontzia...

Kirmenen esanetan: "Ezagutu ditudan eta hainbeste eman didaten emakume guztiei omenaldia".

GAZTEENDAKO: Joao Paloma González Rubio (Ibaizabal, 2022)

João, gazteentzako 2019 Alandar narratiba saria jaso duen liburua.

Miguelak kostaldeko herri batean bizimodu arrunta darabere amarekin eta arreba Inesekin. João zibilizaziotik at bizi da Meltemi izeneko belaontzian, eta oso gutxitan lehorretatzen da. Bi gazteek (João eta Miguel) topo egingo dute; haien bizi estiloak hain dira desberdinak (itsasoan bizi dena eta lehorrean bizi dena), ezen aurrez aurre jarriko diren haien ikuspuntuak, eta horrek betiko markatuko du haien patua.

HAURRENDAKO: Mel eta ehun goibel Castillo Suarez & Morkots (Denonartean, 2022)

Castillo Suarez eta Morkots altsasuarrendako ez da haur literatura elkarrekin jorratzen duten lehen aldia. Hain zuzen 2015. eta 2018. urteetan *Agur, Agur* eta *Mainamikirri* liburuak sortu zituzten.

Aurten, orain dela gutxi argitaratua, album ilustratu honekin datozkigu. Protagonista Mel da, inuit bat, ume bakarra herri txiki batean, bere buruarekin konforme ez dagoena, eta erabaki bat hartzen duena...

Castillok Melen istorio iradokitzaile hau kontatzen digun heinean, hitz samurrak eta ederrak erabiliz, Morkotsek aurpegi jartzen dio Meli eta, koloreekin jolastuz, paisaia desberdinetan zehar eramaten gaitu protagonistarekin batera.



NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Alegre Mariano Izetaren finalean

Baztanen jokatu zen Nafarroako Bertsozale Elkarreak eta Baztango Udalak antolatzen duen X. Mariano Izeta bertso sariketa. Idoia Granizo eta Ekain Alegre altsasuarrek parte hartu zuten, eta Alegre sei finalisten artean egon zen, hirugarren postua lortuz (302 puntu). Sarai Roblesekin jantzi zuen txapela, eta Ekhiñe Zapiainek bertso hoberearen saria irabazi zuen.

"Musika nire parte da"

IÑAKI GASCO CLAVER MUSIKARIA

Altsasuarrak txikitatik jaso du musikarekiko maitasuna, eta gaur egun The Guilty Brigade, Deserrite eta Los del Rayo taldeko gitarrajolea da. Bihar Altsasun joko du

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Musikan "betidanik" egon dela esan du Iñaki Gasco Claver gitarrajoleak. Bere aitaren "errua" izan daiteke, hainbat taldetan jo izan duelako eta txikitatik "gauzak" erakusten eta irakasten joan delako. Hiru taldetako gitarrista da Gasco: Deserrite, Los del Rayo eta The Guilty Brigade, eta bihar, larunbata (22:00etan), Altsasuko Gaztetxean, birritan joko du.

Noiz hasi zinen musika ikasten?


Egia esan ez dut gogoratzen, baina betidanik. Aita betidanik ibili da talde desberdinetan eta txikitatik gauzak erakutsi eta irakatsi dizkit. Musika eskolan bateria ikasten ibili nintzen, baina musika gozatzeko ikusten nuen, eta, azkenean, nahi ez nituen gauzak jotzera eta ikastera behartzen ninduten, eta utzi egin nuen. Nire kabuz jarraitu nuen.

Bateria ikastetik gitarra jotzera. Zergatik?

Aitak gitarra jotzen du, nahiz eta gaur egun Los del Rayo taldean baxua jotzen duen. Gitarrek eta musika tresna desberdinak eskura izan ditut. Bestetik, betidanik gustatu izan zaizkit Slash, Angus edo Bonamassa bezalako gitarrojoleak, eta zerikusiren bat izan zutela ziur nago. Bateria ere jotzen dut, nire lehen musika tresna bateria izan zen. Etorkizun batean bateriojole gisa talde batean egoitea gustatuko litzaidake; etorkizun urrun batean.

Noiz erabaki zenuen modu serioagoan hartzea?

Nire bizitzaren parte da; ez diot nire buruari inoiz esan "serioago hartu behar dut". Betigauza berriak ikasten ibili naiz, baita musika asko entzuten eta talde desberdinetatik ikasten ere. Egunero jotzen dut gitarra, eta ez dut inposizio bat bezala ikusten. Disfrutatzen dudalako jotzen dut.



Iñaki Gasco Claver gitarrista kontzertu batean. UTZITAKOA

Zein taldetan zaude?

Gaur egun hiru taldetan nago: The Guilty Brigade, Deserrite eta Los del Rayo. Egia da azken aldian Los del Rayo taldeari beste biei baino arreta gutxiago eskaintzen diodala denbora kontuengatik. Azkenean, denbora

"BIZIMODU BAT DELA ULERTU BEHAR DA; OHOLTZAREN GAINEAN ZAUDENEAN MEREZI DU"

nola banatu behar dudana erabaki behar dut, eta The Guilty Brigaderekin ia asteburuko kontzertuak ditugunez, eta izen ezagunena daukan taldea denez, denbora hari eskaintzen diot.

Eta nola uztartzen duzu? Zaila da? Batzuetan bai. Baina The Guilty Brigaden sartu nintzenean, beste taldetako taldekideei esan nien lehen gauza izan zen nire lehen tasuna izango zela. Beraz, Guiltyren daten arabera eta kontzertuen arabera beste biek in molatzen saiatzen naiz. Orokorrean ez dira kontzertuak zapaltzen. Estilo al-

detik Deserriten eta Los del Rayon rock and roll-a egiten dugu, eta The Guilty Brigaden, berriz, punk-rocka.

Zer baldintza bete behar dira talde batean sartzeko?

Gogoia izatea. Nik uste hori dela behar den bakarra. Lan egitea eta taldearekin konpromiso handia izatea. Azkenean, gauza asko alde batera utzi behar dituzu, eta are gehiago, taldea, goiko mailan dagoenean. Ezin zara asteburuko herrian atera edo astean zehar, nire kasuan, oso zaila egiten zait arratsaldeetan tarteren bat ateratzea. Bizimodu bat da, eta horrela ulertu behar da. Oholtzaren gainean zaudenean merezi du esfortzu eta lan guztiak.

Nola hasi zinen taldeetan?

Garabatos taldearekin hasi nintzen. Bertsioak egiten genituen eta disko bat kaleratu genuen ere. Oso gazteak ginen eta taldea utzi behar izan genuen. Bestetik, betidanik gustatu izan zait kontzertuen eta musika taldeen mundua. Hau ere aitaren errua izan da, berak txikitatik esaten zidan, "ea noiz sortzen duzun talderen bat". Honetaz gain, beti ibili naiz Los del Rayo taldearen lokalean bueltaka eta haiekin jotzen.

Nola dator udazken-negua?

Orain kontzertu asko ditugu, hainbat aretotan. Gainera, The Guilty Brigaderekin X. urteurrenerako lau abestiz osatutako EP bat egin dugunez, aurkezpen kontzertu dezente ditugu. Urriaren 29an, Altsasuko Gaztetxean, aurkezpen kontzertuarekin hasi eta ondoren leku askotan aurkeztuko dugu. Horien artean, adibidez, Non Serviumekin batera, abenduaren 3an, Gasteizen.

Etorkizuna?

Nork daki, ziur oholtza baten gainean dela.

Zenbat gitarra dituzu? Eta izatea gustatuko litzaizukeena?

Sei bat ditut. 1976ko greco customa da orain gehien gogoko dudana. Orain diot, behin gitarraren munduan sartzen zarenean, hainbat gitarra probatzeko sentimendu bat azaleratzen zaizulako. Orain buruan SG bat daukat. Nork daki. Nire ametsetako gitarra 1959 Gibson les paul standard bat da.

"KONTZERTU ASKO DITUGU; BIHAR DISKOAREN AURKEZPENA EGINGO DUGU ALTSASUN"

The Guilty Brigaderen urteurrena

2012ko udan, Atarrabiako Gaztetxean, Amerikako Estatu Batuetako, Britain Handiko eta abarrekoinuak gustuko zituzten gazte batzuk bildu ziren. Helburua amankomunean gustuko genituen talde horien antzeko musika sortzea zen. Horrela sortu zen, duela hamar urte, The Guilty Brigade. "Ordutik gaur eguneraino asko aldatu da egoera, partaideak eta abar". Gartxot Guilty taldeko abeslaria da eta Nestor Aranguren bateriarekin, Xabi Basstard baxu-jolea eta koroen abeslariarekin eta Iñaki Gasco gitarra-jolea eta koro abeslariarekin X. urteurren biraren hasierako kontzertua eskainiko du bihar, urriak 29, larunbata, 22:00etatik aurrera, Altsasuko Gaztetxean. 'Queroseno' diskoa aurkeztuko dute ere.

The Guilty Brigaderen musika estiloaz galdetuta, "zaila da holako galdera bat erantzutea; hamar urte hauetan zehar taldekideak, esperientziak, influentziak, bizipenak eta abar berritu egin dira, eta horrekin batera sortzen dugun musika ere". Rock and roll kontzeptuarekin lotuta daude: "Musikaz gain, bizitzeko modu bat bezala ulertzen dugulako". Abestiak egiteko prozesua ere "oso aldakorra" dela esan du abeslariak. "Batzuetan etxetik eramaten ditugu ideiak, bestetan lokalean bertan sortzen ditugu...". Kantaren garapena lokalean egiten dute, eta letrak berak egiten ditu. Oholtzara eramaten dituztenean, "intentsitate handiko" zuzenekoak egiten dituztela esan du. "Etorkizuna? Hurrengo kontzertua. Errepidea erretzen jarraitzea da espero dugun bakarra".

"Telefono zaharrak ekarri; Kongo lagunduko dugu"

Tasubinsa Lakuntzan telefono mugikor zaharrak ari dira biltzen, koltana eta bestelako materialak birziklatu eta Kongoko komunitateak laguntzeko. Martin Garziandiak, Iradi Galartzak, Rafael Errok eta Edurne Martinezek Raices y Brotes ekimena aurkeztu dute

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA

1 Jane Goodall España Institutuko Raices y Brotes ekimenak antolatutako "Movilízate por la selva" kanpainan parte hartzen ari zarete Lakuntzako Tasubinsan.

Kanpainaren helburua ahalik eta telefono mugikor gehien biltzea da, barruan duten koltana birziklatzeko. Ekintzarekin Kongoko komunitateak eta Afrikako txinpantzeen eta gorilen habitata hobetzen lagunduko dugu.

2 Mugikorrek egiteko koltan minala behar da. Nondik ateratzen dute?

Koltan erreserba handiena Afrikan dago, Kongoko Errepublika Demokratikokoan. Koltana Kongoko legez kanpoko meategietatik ateratzen da. Material oso baliotsua da, eta horrek gerrak eta bortxaketak eragiten ditu, eta horretaz gain inguruko pobrezia, haurren legez kanpoko lana, uren kutsadura, baso-soiltzea eta inguruko ekosistema eta komunitateak suntsitzen ditu, txinpantzeena, adibidez.

3 Beraz, guk guztiok telefono mugikorrek izateko nolako miseriak pasatzen dituzten Kongon.



Martin Garziandia, Iradi Galartza, Rafael Erro eta Edurne Martinez.

Bai, miseria handiak.

4 Kanpaina honekin, beraz, erabiltzen ez diren telefono mugikorrek jaso eta Afrikara bidaliko dira, barruan duten koltana birziklatzeko.

Bai, hori da, koltana birziklatuko da beste mugikor berri batzuk egin ahal izateko. Etxean gordetzen diren mugikor zaharrak berrerabiltzeari esker koltana birziklatzen badugu, aurretik aipatu ditugun arazo guztiak

ekidin ditzakegu. Eta horretaz gain, gailuak egiteko erabiltzen diren beste material batzuen salmentaren bidez, bestelako ekimenak bulkatuko dira Kongoko komunitateak laguntzeko eta txinpantzeen habitata hobetzen laguntzeko.

5 Telefono mugikorrez gain bestelako gailuak ere jasotzen al dituzue kanpaina honetarako?

Bai, tabletak ere jasotzen ditugu. Tasubinsa Lakuntzan mugikorrek eta tabletak biltzeko gune bat sortu dugu, gero birziklatu ditzaten.

6 Aipatu duzue kanpaina honekin Afrikako txinpantzeen habitata hobetzen lagunduko duela. Nola?

30 mugikor edo tableta birziklatzen diren bakoitzean Kongoko txinpantze bat babestuko da urtebetez. Euren aitaponteko izango ginateke. Txinpantze horrek ongi bizitzeko laguntza, babesa eta elikadura izango luke. Eta bere argazkiak, bideoak eta informazioa bidaliko lizkigukete.

7 Momentuz zenbat mugikor edo tableta bildu dituzue ekimenetarako?

11 mugikor eta tableta bat, beraz 12 guztira. Gutxienez 30 biltzea nahiko genuke, txinpantze baten aitaponteko izateko. Edo gehiago.

8 Edozein hurbildu daiteke Tasubinsa Lakuntzara etxean dituen mugikor eta tableta zaharrak eramateara?

Bai, edonor etorri daiteke bere mugikor zaharra gure birziklatze kutxan uztera. Gure ordutegia astelehenetik ostiralera da, 8:30etik 16:30era (Uriz Kalea, 30, Lakuntza, 948 57 60 17).

9 Kanpaina honetan parte hartzen ari zaretenak mugikorrek eta tabletak jasotzeko txoko polita prestatu beharko duzue, txokoen txapelketa antolatu baitute.

Bai, orain txoko polit bat prestatzen ari gara, bertan jasotako mugikorrek gordetzeko eta izena eman dugun lehiaketan parte hartu ahal izateko. Momentuz, gailuak kutxa batean jasotzen ditugu eta ate ondoan jarri dugu. Txoko lehiaketan Tasubinsa Lakuntzakoek, eta baita Tasubinsako beste zentro batzuetako lankideek ere parte hartuko dute.

10 Sakandarrak ekimenean parte hartzera animatuko ditugu?

Noski! Sakandar guztiak animatu nahi ditugu, GUAIXEko irakurle guztiak ere. Etxean dituzten mugikor eta tableta zaharrak Tasubinsara ekarri. Zahar-zaharrek ere balio dute. Koltana birziklatuko dute eta bestelako osagaiak saldu edo birziklatuko dituzte, eta lortutako diruarekin Afrikako txinpantzeen habitata hobetuko da eta Afrikako komunitateak lagunduko dira.

11 Polita litzateke Sakanak Kongoko txinpantzeetako bat babestea.

Jakina, ea guztion artean lortzen dugun. Kanpaina hau ekimen polita da, arrisku egoeran dauden animalia batzuk laguntzen ari garela eta bide batez Kongoko herritarrei ere lagunduko diegu, koltanaren aferarekin gaizki pasatzen ari baitira. Koltanaz gain han ere urrea, harribitxiak, diamanteak... daude, eta orduan herri boteretsuak han sartu eta euren ondasunak lapurtzen dizkiete, animaliek euren habitata galtzen dute... desastre hutsa.

**ZURE MARKA
DESBLOKEATZEKO
GAKOA
DUGU**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



gk
DISEÑO Y
COMUNICACIÓN

f o
619 621 436
info@gkcomunicacion.es
www.gkcomunicacion.es
Foru plaza, 23-1. Altasu